



BARREN

TOKIKOM

Azkarrago nahi

Nerea Sasiain atleta





ROSA M^o PINTADO
 Etxaldean administratzailea
 749 kolegiatu zenbakiduna

660 969 679 / 943 742 184
 rosapf@telefonica.net

Bulego kolaboratzailea



ETXALDEEN ADMINISTRAZIOA ELGOIBARREN



Arreta

- Bezeroarentzako arreta 365 egunez
- Kudeaketa serioa, zintzoa eta pertsonalizatua
- Eskubideen eta betebeharren gaineko informazioa
- Akordioak izenpetzeko aholkularitza juridikoa
- Bitartekaritza lanak
- Behar beste ezohiko bilera

- Komunitatearen agiriak eskuratzeko aukera
- Jabeen kontuen gaineko informazioa komunikatzea
- Komunitatearen egoeraren gaineko hileroko laburpena
- Datu eguneratuak, eskura

Gardentasuna



Kontrola

- Aurrekontuen azterketa eta kudeaketa
- Nolaritza eta erregistroetako tramiteak
- Lanen ikuskatzea
- Kontratuen egiaztatzea
- Zor diren kuoten jarraipena eta kudeaketa

25 URTE BAINO GEHIAGOKO ESPERIENTZIA PROFESIONALA



Consejo Vasco de Colegios
 de Administradores de Fincas

Euskadiko Finka Administrazioaren
 Lurralde Kontseilua



Komiki-tiren erakusleiho

Komikiek egunkarietan badute beren txokoa, baina herri aldizkarietan oso ohikoa ez zenean, orain dela 25urte, BARREnek lekua egin zien komiki tirei. Zerbaki bakoitzean ikusi genituen astero-astero Kokoe taldekoek egindako irudi eta kontakizunak. Lehenengo zenbakiik 2006ko abendura arte aritu ziren txukun eta fin herriko komikilariak beren lanak gurean ikusgai jartzen, eta irakurleen artean jarraitzaile ugari lortu zituzten.



Familia bitxi baten eguneroko kontuak ziren lehen tiraren ardatz.



Kixmi jainkoak eta jentilek bat egin zuten komiki bitxi batean.

Barrak, Birrak eta Barreak



Joxeren barrako zenbait irudi liburu batean jaso zituzten.



Ehorztetxe batek umorea sor dezakeela erakutsi zuten.

Harrigoikoerrotaberritarrek izan zen lehen komiki tirako familia protagonista. Familia batean gerta daitezkeen eguneroko gertakizunak familia berezi batean kokatu eta umore kutsua emanez herritarrengana gerturatu zituzten Alberto Garcia eta Iñaki Raigosok. Lau edo bost komikirentzako gidoiak prestatu, eta marraztu egiten zituzten gero. Herrikoa izanik komikiak erraz hartu zuen lekua BARRENEN.

Mikel Cornejoren *Kixmi* pertsonaiak hartu ziren lekua *Harrigoikoerrotaberritarrei*. Bitxia zen pertsonaia, eta bitxiak ziren istorioak ere. Antzina, Euskal Herrira etorritako Kixmi jainko bakarrak eman zuen zeresanik. Mikelek berak ez du gogoan ideia bera nondik etorri zitzaion ere, eta aurrekoa baino "arraroagoa" izanik hain herrikoa ez zela ere uste du. Hala ere, bai berarentzat eta baita komikiaren zalak batzen zituen Kokoe taldearentzat ere euren lanei zabalkuntzea ematea zen garrantzitsuena eta horretarako BARREnek eskaintako leihoa "aukera-aukerakoa" izan zitzaion.

Barrak, birrak eta barreak izan zen BARRENeko orrietan denbora gehien iraun zuen komiki-tira. 1998tik 2004ra arte, hain zuzen ere. Astero-astero pertsonaia asko pasatu ziren Joxeren barra aurretik, zein baino zein kuriosoagoak eta beti ukitu umoretsuarekin. 2003an Antxon Alvarez eta Iban Barrenetxea egileek liburua argitaratu zuten BARRENEN ordura arte argitaratu zituzten komiki-tiren aukeraketarekin.

Gazteagoek hartu zuten erreleboa gero eta David Garridok eta Ander Sanchezek *Hil da gero...* tirari ekin zioten. Ehorztetxe batean gertatuak ekartzen zituzten aldizkari orrietara, baina beti ere ukitu komikoarekin. Entzun izan zuten batzuei gehiegizkoa egin zitzaizela, baina, jakina, jarraitzaileak ere izan zituzten.

Kokoe taldea pixkanaka desegin egin zen, eta horrekin batera baita BARRENeko orrietatik komiki-tirak ere. Aldi luze batez, komikiak argitaratzerari laga genion, baina duela asko ez dela marrazkiari berriz tarte egin dio BARREnek Iritzia atalean. Paula Heras marrazkilaria egiten ditu gaur irudi horiek.

ANDER SORALUZE

Informatikaria



Bitcoin eta Blockchain

Azkenaldian asko entzun izan ditut Bitcoin eta beste zenbait kriptomonetari buruzko kontuak eta, denen atzetik, blockchain izeneko zerbait omen dago. Zer dira batzuk eta besteak?

Blockchain informazioa kodifikatzeko teknologia berri bat da. Berezi egiten duena zera da gehienbat: balidazioa deszentralizatua dela. Hau da, blockchain bateko informazioa egia den ez du erakunde batek esango, blockchain horren erabiltzaileek baizik. Horretarako, erabiltzaile guztiek izango dute informazio guztia eskuragarri. Askotan

erabiltzen den konparazio bat kontu liburuarena da: enpresa bateko diru-kontu guztiak liburu bakarrean badaude eta liburu hori nire kaxoian gordeta badago, nik bakarrik ziurta dezaket informazioa zuzena dela eta, adibidez, nire mesederako aldatu ahal izango nuke. Horrek, noski, sekulako boterea ematen dit. Liburu horren kopia, ordea, enpresako langile guztiok bagenitu, inork ezingo luke aldatu, beste guztiok segituan konturatuko ginatekeelako. Blockchain hitzak bloke-kate esan nahi du. Kasu honetan, bloke bakoitza liburuko mugimendu bat izango litzateke eta, mugimenduok kronologikoki

“Nire poltsikoko 10 euroen balioa erakunde batek emana da eta hark erabakitzen du nire paperaren balioa igo ala jaitsi”

ordenatuta leudekeenez, kate bat osatuko lukete.

Eta zertarako balio du honek guztiak? Ba, adibidez, dirua kudeatzeko. Teknologia hau erabiltzen lehena Bitcoin kriptomoneta izan zen. Berau erabilia, ez zeukan inongo estatu edo banku zentralen beharrik bere balioa bermatzeko. Bestera esanda, inork ez dauka bere kontrolpean, Euroa, Dolarra eta gainontzeko moneta “arruntak” ez bezala. Nire poltsikoko 10 euroen balioa erakunde batek emana da (bestela, paper bat besterik ez da) eta erakunde horrek erabakitzen du nire paperaren balioa igo ala jaitsi. Hau da, monetaren inflazioa, deflazioa etab.

Blockchain teknologia, ordea beste gauza askotarako erabilgarria omen da. Azkenaldian modan dauden kotxe autonomoek, adibidez, beraien arteko komunikaziorako erabili ahalko dute ala Internet Of Things delakorako sekulako garrantzia izango omen du. Ikusiko dugu...



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Eusko Jaurlaritzaren Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Irtzia, Hitz eta klik eta eskuizak ataletan adierazita-koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldeggi **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zaloe Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Soraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldeggi, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR
UDALAK
KULTURAREN

LAGUNTZAILEAK:



MENDAKOIA



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ XXI. PILOTA EGUNA

Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu joan den larunbatean, martxoaren 10ean, ospatutako XXI. Pilota Eguna antolatzen lagundu duten Elgoibarko Pilota eskolako arduradunei.

Bestalde, eskerrik beroenak parte hartu duten neska-mutilei. Datorren urtean ere laguntzeko prest egongo zaretelakoan, agur bero bat.

Pilota Eguneko Batzordea

▶ NORK KENDU DITU KARTELAK?

Pasa den larunbatean egun berezia bizi izan genuen Elgoibarko Lagun Taldea txirridularitza eskolakook. Kade-teen mailako Elgoibarko Lagun Taldea Saria berreskuratu genuen urte batzuk pasa eta gero. Aurten, gainera, urte gogor baten ondoren, gure kide izandako Iker Amutxastegiren oroimenez izan zen. Arratsaldean, Mendaroko industrialdean, txikientzako lasterketa ere egin genuen. Larunbat gogorra, baina merezi izan zuena. Politza izan zen bizi izandakoa. Eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu babesle, laguntzaile eta boluntarioei, guztien laguntzaz antolatuta ditugulako lasterketak.

Tamalez, herrian jarritako kartelak desagertu ziren lasterketetako aurreko egunetan, eta kexa hau zabaltzea nahi genuke. Egun horietan antolaketan buru belarri ibili ginen eta ez zaigu bidezkoa iruditu. Gehienak tabernetan jarri genituen eta gutxi batzuk kalean, normalean kirol ekitaldien kartelak jartzen

dituzten lekuetan. Baina jarri eta handik gutxira, desagertu edo txikituta agertu ziren eta leku horietan aste bukaerara arte iraun zuten beste hainbat ekintzetako kartelak. Bihurrikeriak izan daitezkeela esango du norbaitek, baina harrigarria da leku batzuetan gurea bakarrik falta izana. Gure egoitzaren atean jarritakoa ere desagertu zen.

Lan talde berria gara pasa den urtetik eta herriko gazteei kirola egiteko beste aukera bat ematea eta kiroltasunez heztea da gure helburua. Errespetua eskatu nahi dugu. Bitartean, gogor jarraituko dugu lanean gure proiektuek aurrera egiteko. Eskerrik asko.

Elgoibarko Lagun Taldea

▶ LANGABEZIA ETA DEBABARRENA

Debabarrenak dauka langabezia altuena Gipuzkoako eskualdeen artean. Hala diote estatistikek. Baina gero oso errealitate desberdinak aurkitzen ditugu eskualdearen barruan: bi herrik tasa oso altua daukate, Eibarrek eta Soralezek, %15etik gorakoa. Gipuzkoako altuenetakoak. Elgoibarrek %10etik gorako tasa dauka, baina kontuan hartzen badugu Gipuzkoako batz besteko langabezia %8 pasatxoan dagoela, kezkatzekoa da hori ere. Mendarok, Debak eta Mutrikek %10etik beherako langabezia dute, beste errealitate bat erakutsiz.

Debabarreneko garapen agentzia Debegesa dugu. Teknikoki gidatzen

du, nahiz eta gero eskualdeko udalteeetako ordezkariak osatzen dituzten horko aginte organoak.

Eskualdeko industria gune asko bertan behera erori zen, eta haien ordezkaria ez da maila berean sortu. Industria indarra galtzen joan da, eta zerbitzuen arloak hartu du garrantzia, jakina lan esku merkeagoarekin kasu askotan (kalifikaziorik gabeko lanetan). Eibar eta Soraluze industriaren zaharkitzeak jo zituen bete betean. Eibarren zerbitzuen aldeko apustu handia egin zen, baina egoerak berdin segitzen du, langabezia altuarekin. Soraluze okerrago dago oraindik. Azken krisian eskualdeko industriak 1.300 lanpostu galdu zuen 2009-2016 artean.

Debegesa bere lerro estrategikoen balantzea ari da egiten, eta berrikuntza bezala jendearen parte hartzerako aukera xume-xumea eman dute, haien web orrian sartu eta landuta dauzkaten lerro estrategikoen artean, lehenasuna zeri emango geniokeen erantzun daiteke. Gaiaren garrantzia kontutan hartuta, iritzia plazaratu eta eztabaidatzeko aukera aprobetxatu beharko litzateke.

Mendi

▶ OHARRA

Gogoratu Aste Santuko jai zubia dela-eta, martxoaren 30ean ez dugula BARRENik kaleratuko.

BARREN

I. URTEURRENA

Jose Gomez Garcia

2017ko martxoaren 14an hil zen, 90 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurrenako meza izango da, zapatuan, martxoaren 17an, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.

Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.




Olaizagako igerilekua handitzeko proiektua idazteko deialdia egin dute

Olaizaga kiroldegiko igerileku estaliak handitzeko diru kopuru bat gorde zuen Elgoibarko Udalak aurrekontuetako inbertsioen atalean. Orain, proiektua idazteko lizitazio deialdia egin du.

Daudenak mantendu arren igerileku-ontzi berri bat eraikitzea proposatu dute.

Ontzi berri horrek 25 metro luze eta 16,50 metro zabal izango ditu, hau da, 8 kale; kale bakoitzak 2 metroko zabalera izango du; gutxi gorabehera, 450 metro koadroko ur geruza.

Igerileku berria eraikitzeaz gain, dauden aldagelak berri eta bi aldagela berri eraikiko dituztela jakinarazi du Udalak. Bestalde, aparkalekuak egingo dituzte gune berriaren teiltuan oraingoa ordezkatzuz. Era berean, handitze horretan kontuan izan behar da, etorkizunean San Roke kalearen eta aparkaleku berriaren artean dagoen aldea gainditzeko igogailua egiteko aukera.



Kalitatezko azpiegiturak

Ane Beitia Elgoibarko alkatearen esanetan, anbizio handiko eta epe luzeko proiektua da, kirol eskaintza hobetzeko helburua duena, "egungo eskarira eta irisgarritasun, kirol, genero eta abarretako esparruetan indarrean dauden arauetara egokituz". Udalak egiten duen esfortzua "handia" dela gehitu du, "Elgoibarrek kalitatezko azpiegiturak izan ditzan eta elgoibartar guztiak kirola egiteko aukera bermatuta izan dezaten".

Udaleko Hirigintza zinegotzi losu Arraizek esan du igerilekuak "kontserbazio egoera onean" daudela, baina handitzeko beharra dutela eskariari behar bezala erantzuteko. Elgoibartarrei ez ezik inguruko beste udalerrietako abonatuak ere erantzuna emango die.

Gaur egungo eraikinak kanpoko irudian ere izango ditu aldaketak. Hegoekialdean bolumen angeluzuzen berri bat eraikiko dute, eta igerileku berriari argi naturala sartzen uzteko fatxadetariko batek leiho handi bat izango du. Honez gain, igerileku estaliak handitzeko proiektuak, oraingo igerilekuen eta kiroldegia beraren berrantolaketa egiteko aukera emango dio Udalari.

'EuskarAbentura' espediziorako izena emateko epea, zabalik

Aurtengo uztailean Euskal Herriko zazpi probintziak zeharkatuko dituen *EuskarAbentura* espedizio gaztea antolatu dute. Mauletik abiatu eta Done Jakue bidea jarraituz, hiriburuz guztietatik eta Unescok Gizateriaren Ondare izendatutako toki guztietatik igaroz, Getxoko Bizkaia Zubian amaituko da. Parte hartu nahi duten 16 eta 17 urte bitarteko gazteek martxoaren 18ra arte daukate motibazio gutuna eta lana bidaltzeko. Lanerako hiru gai daude aukeran: Euskara eta zure herria, Euskara eta emakumeak eta Euskara eta itsasoa. Izen-ematea eta lana www.euskarabentura.eus webguneko formularioaren bidez bidali behar dira eta helbide horretan dago informazioa ere.

Argazkia, Altsasuko gazteekiko elkartasunez

Altsasun, liskar batean parte hartu zuten gazte batzuen kontrako epaiketa apirilean hasiko da. Hori dela eta, asteburuan elkartasun ekitaldiak izango dira herriz herri. Elgoibarren, Altsasuko gazteei, euren lagun eta senideei babesa adierazteko argazkia aterako dute. Gaur, barixakuan, 19:30ean elkartuko dira Kultur Etxeko atarian. Horrez gain, apirilaren 14an manifestazioa izango da Iruñean eta Elgoibartik autobusa antolatzen saiatuko dira.

Gloria Alvarez Irusta

2018ko martxoaren 13an hil zen, Donostian.

Maitasunez, beti gure bihotzetan.

Arriola-Irusta, Rementeria-Irusta eta Irusta-Uria sendiak.



Emakumeek planto egin zuten eguna izan zen Martxoaren 8a eta aspaldiko mobilizazio handienak egin ziren

Aspaldiko bilkurarik jendetsuenak izan ziren martxoaren 8aren harira Elgoibarren eta Mendaron egin zituztenak. Mundua mugitzeko, planto egin zuten ehunka emakumeek eta kalera atera ziren emakumeek egiten duten lanari duen balioa aitortzeko eskatuz. Emakumeen lanen ikusezintasuna hainbat modutara bistaratu zuten: kartelek, amantalak zintzilikatuz, besoko moreekin, elkarretaratzeak antolatuta, martxarekin, zarata ateraz... Lanuzteak ere egin ziren, han eta hemen.

Eguerdian, hamabost minutuko elkarretaratzeak egin ziren Elgoibarren eta Mendaron. Mendarokoan, lapikoekin atera zuten zarata. Elgoibarko Kalegoen plazako bilkura isila izan bazen ere, amaieran, BHI Institutuko ikasleak batu ziren plazako lagunartera, hainbat mezu idatzita zituzten oihal eta kartoiekin, eta ondoren, manifestazio zaratasua egin zuten herriko kaleetan. Arratsaldean, batukadak girotuta Elgoibarren egin zen Martxa Morean ehunka emakumeek hartu zuten parte eta gizonetzkoak ere batu zitzaizkien. Mendarotik, berriz, Eibarren antolatu zuten manifestaziora joan ziren elkarrekin.

Zaila da greba feministak izan zuen jarraipena neurteza, baina bistan gelditu zen izan zuen arrakasta, emakumeek bizi duten azpiratzearen inguruko gogoeta inoiz baino ozenago entzun zelako kalean, eta baita hedabideetan eta sare sozialetan ere.



Elgoibarren herriko kaleetan ibili zen martxa morea iluntzean.



Mendaron eguerdian plazan egin zuten elkarretaratzea.

Hezkuntza publikoko grebaren erantzuna apalagoa izan da azkenekoarekin alderatuta

Greba egunak izan zituzten hezkuntza sare publikoan eguaztenean eta eguenean. Lan-baldintzak eta hezkuntzaren kalitatea hobetzea izan ziren eskari nagusiak. Elgoibarren, irakasleen %73k eta hezitzaileen %67k egin zuten greba Herri Eskolan, %59k, Arreiturre Batxilergo Institutuan eta %76,6k Meka Lanbide Heziketan. Mendaroko Herri Eskolan irakasleen gehiengoak egin zuen greba. Bi herrietako haur eskoletan, berriz, ez zuten grebarik egin.



Arg.: Patxi Casal

Araztegiko ezbehar batek eragin zuen Deba ibaian atzemandako isurketa

Apraizko araztegiko ezbehar batek sortu zuen Deba ibaian, Altzolan, martitzenean izandako isurketa eta hark eragindako aparra. Araztegiko teknikariek baieztatu zuten, ezbehar bat izan zuten eta garbitzen ari ziren hondakin-urak isuri ziren ibaira. Goiz jakinarazita, garaiz ikertu ahal izan zuten, baita ibaian fauna hilik ez zela baieztatu ere. Aurrez ere isurketak izan direnez, jarraipena egiteko jarritako kamaren irudiak ere eskuratu dituzte.

Euskarak enpresa arloan duen pisuari buruz ezer gutxi dakigu, baina gero eta gehiago dira hizkuntzari garrantzia ematen dioten lantokiak. Danobat kooperatibak urrezko Bikain kalitate ziurtagiria jaso zuen abenduan, eta Debabarrenean maila honetakoa eskuratu duen estreinako industria-enpresa izan da. Euskarari beren kooperatiban ematen dioten garrantzia eta euskarak egin duen ibilbidea izan ditugu hizpide Cesar Arriola Danobateko presidentearekin. Bestalde, San Lazaro Egoitzaren ardurua duen Biharko Gipuzkoa euskararen erabilera bultzatzeko hainbat jarduera egiten hasi da egoitzan eta haren berri ere jaso dugu.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -



▶ CESAR ARRIOLA

DANOATEKO PRESIDENTEA

“Gai gara teknologia puntakoena erabiltzeko gure artean euskaraz arituta”

◆ **Urrezko Bikain ziurtagiria lortu duzuen lehen enpresa zarete Debabarrenean eta Erreminta Makinan ere aurrenekoak. Esanahi berezia du horrek zuentzat?**

Ilusioa egin digu, noski. Saria egindako lan bati emandakoa izan da. Helburua hori zen guretzat; ez Urrezko Bikain ziurtagiria jasotzea derrigorrez, baina bai gure lantegietan euskararen erabilerrari buelta bat ematea.

◆ **Zein arlotan egin duzue lan bereziki bultzada hori emateko?**

Batetik, lantegietako paisaia euskaratzen (kartelak, abisuak... euskara hutsean). Bestetik, barne-komunikatuetan bi kate egin ditugu langileen artean: kolektibo bati euskara hutsean bidaltzen dizkiegu agiriak, eta euskaraz egiten ez dutenei, bi hizkuntzatan. Normalean jendeak erdaraz irakurtzeko joera zuen, baina orain, euskaraz irakurtzeko gaitasuna duenak euskaraz jasotzen ditu. %85-90 gai dira euskaraz irakurtzeko, eta justu xamar dakienari edo zalantzak dituenari saiartzeko esaten diogu, eta zailtasunak dituela ikusiz gero, bietara jasotzeko aukera ematen diogu.

Beste bultzada bat bileretakoa da. Ez da bakarrik bileretan jendea euskaraz egitera animatzea, baizik eta bileretan euskara zein portzentajetan egiten den neurtzea. Datu horiek urte guztian gure gestioa kontrolatzen duen aginte panelean sartu ditugu, kontuan hartzeko. Bileretan gure helburua %75 euskaraz egitea izan zen; ez gara iritsi, hitz egiten %70 inguruan gabiltza, eta idatziz, %60 inguruan. 2018rako helburu berarekin jarraitzen dugu. Gauza bat da dokumentu bat euskaraz irakurtzen dutenen kopurua eta beste bat bilerak euskara hutsean egitea; bigarren horrek apaltzen du erabilera-datua.

Langile berriek beharrezko euskara maila duten ala ez ere neurtzen dugu. Lanpostu bakoitzak hizkuntza maila bat dauka, ez euskaraz bakarrik, baita frantsesean, ingelesean..., beraz, begiratzen dugu maila hori daukaten edo prestakuntza (goizetan hizkuntza eskolak izaten dituzte) behar duten. Bazkide izatera iristeko euskara maila hori izatera iritsi behar dira.

◆ **Urrezko ziurtagiria lortzeko zailtasun nabarmenenak zertan sumatu dituzue?**

Bilera arloan oraindik kostatzen ari zaigu euskara erabiltzea. Bilerak euskaraz izatea eta idatzizkoetan euskaraz izatea zaila egiten zaigu. Euskara teknikaria hor dago eta aktak euskaratzen ditugu, baina oraindik ez dugu lortu bilera batean euskaraz ez dakien pertsona bakarria dagoenean gaztelaniara pasatu gabe aritzea. Hori zaila da, baina nik beti esaten dut orain dela 30 urte, ni Danobaten sartu nintzenean, hemengo bilerak gaztelania hutsean izaten zirela. Hor sekulako pausoak eman dira, urteetan lan egin delako euskararen alde.

Baina zailena merkatua da. Guk %90 baino gehiago Espainiatik kanpora saltzen dugu, eta saltzera goazenean ez dugu, noski, euskaraz egiten; Euskal Herrian apenas saltzen dugun. Hornitzaileekin ere zaila da euskaraz egitea, euskaraz jakin arren sarri harreman komertzialean ohituago gaudelako gaztelaniara. Merkatua begira oso zaila da euskarazko harremana izatea; batetik, saltzeko gure merkatua ez dagoelako Euskal Herrian eta erosteko beste enpresa pila batek ez dutelako euskara gure maila berean landuta. Barruko oztopo handienak gure ohituretan daude. Aurten beste apustu bat egingo dugu. Erabilerrari beste bultzada

bat eman nahi diogu eta horretarako konpromiso pertsonalak hartu behar dira. Normalean eredu batzuk egoten dira. Badaude pertsona batzuk zeinekin jende guztiak euskaraz egiten duen, eta beste batzuei, berriz, gaztelaniaz egiten diete denek, euskaraz jakin arren. Euskaraz dakien horrek bere ingurua euskalduntzen du, baina erderaz egiten duen euskaldunak kate horiek apurtzen ditu. Hori da gestio planean sartutako erronka.

♦ **Danobatek lantegietako eguneroko jardunean ez ezik, bestelako hainbat jardueretan ere egiten du euskararen alde, ezta?**

Alderdi ludikoetan ere jarduten dugu. Esaterako, lehiaketak egiten ditugu bazkideekin zein eskolekin. Herrigintzan ere badihardugu eta diruz laguntzen ditugu euskararen inguruko hainbat egitasmo. Elgoibarko Izarrarekin urte askotako harremana izan dugu, eta Ikastolarekin zer esanik ez. Elgoibarko Ikastola dagoen lursaila Danobatek oparitutako da. Apustu hori betidanik egon da Danobaten; ez bakarrik barrura begira, baita kanpora begira ere.

♦ **Horrelako agiriak industria alorrean jasotzeari jendeak ematen al dio behar besteko garrantzirik?**

Nik uste dut lehenespén kontua dela. Danobaten zilarrezko Bikain ziurtagiria bageneukan eta orain urrezkoa jaso dugu. Gu lanean ari gara, eta gure aurretik beste batzuek jardun dute euskarari bultzada ematen. Euskararen aldeko apustua Danobaten aspaldikoa da. Ez da negozioa, baina negozioa egiterakoan horri ere garrantzia ematen zaio, gutxienez egunerokotasunean euskara mantentzeko. Mantentzeko baino gehiago, lan-hizkuntza

bihurtzeko. Hori erronka handia da. Zaila da, erdaraz lexiko tekniko askoz ere hobea daukagulako eta ez gaudelako ohituta euskara erabiltzera. Askok gaztelaniaz egin ditugu ikasketak eta kostatzen zaigu euskaraz egitea. Langile berri gehienek, baina, euskaraz ikasi dute, eta gure apustu garbia da: ez gaitzen gu izan haiek erdaldunduko dituztenak.

♦ **Beste enpresekiko harremanak izaten al dituzue euskaraz?**

Bezeroekin beraiek nahi duten hizkuntzan hitz egiten dugu;guk hor ezin dugu ezer egin. Hornitzaileei, berriz, laguntzen diegu harremanak euskaraz mantentzen. Baina gauza bat da animatzea eta bestea derrigortzea, eta gu hortara ez gara iritsiko. Baina, esaterako, lanerako tresna txikiren bat edo software bat erositakoan-eta saiatzen gara eskuliburua euskaraz izaten.

♦ **Danobatek euskaratik zer jaso du?**

Euskarak berak negozio modura ez dio Danobati askorik emango. Gehiago da langileon idiosinkrasiak eskatzen duen zer-bait. Horrek aberasten gaitu. Beti gaude mundura begira, azken teknologiarekin, abantailekin, elektronikarekin... baina gai gara euskaraz egiteko eta munduan teknologia punta-koena erabiltzeko, gure artean euskaraz arituta. Horrek guri harrotasun puntua ematen digu.

♦ **Euskararen erabilera bultzatzeko ezinbestekoa da euskara batzordearen jarduna. Zein pisu dauka enpresan?**

Euskara Batzordearako departamentuko edo antolamenduko zati bakoitzetik ordezkari bat eta haren ordezkoa aukeratzen dira (sekula ez galtzeko departamentuaren eta euskara batzordearen arteko harremana). Honen ideia da gero departamentu edo lantegi bakoitzak bere erronkak edo helburuak ipintzea. Askotan begiratzen dugu Danobat goitik, eta goitik egiten diren gauzak han gelditzen dira. Modu honetan talde-koetatik hazten joatea da asmoa.

Euskara Batzordearentzat garrantzitsua ez da urte batean helburu bat %100ean gainditzea. Gure apustua da pixkanaka gaztelaniari lekua jaten joatea, eta lortzen ari gara. Negozioa izaten den gauzetan, jarritako helburuetara biziraupenez heldu behar izaten gara, baina euskarari ez diogu horrelako zorrotasunez jarraitzen. Hala ere, gutxienez ikusten da aurrera goazela. Nik orain dela 30 urte euskararen alorrean ezagutu nuen Danobatek eta oraingoak ez dute zeri-kusirik. Orain dauden pertsona asko Donostiatik, Bilbotik... etortzen dira, eta orduan gehienak herritarrak ginen. Euskara erabili, beharbada, gehiago egiten zen, baina ofizialki askoz gutxiago. Danobatek euskara hiztegi tekniko bat egin zuen, eta gero, liburuxko teknikoak, langileek eskura izateko. Ondoren, Mondragon Unibertsitateak errepasatu zuen gurekin batera eta bigarren edizioa atera genuen. Lan hori ahal den moduan kanpora ateratzen ere saiatu gara.



San Lazaro egoitzan euskarari leku gehiago egitea da 2016an abian jarri zuten plangintzaren helburua

Orain dela bi urte hasi ziren San Lazaro egoitzan euskara planaren lehen pausoak ematen. Biharko enpresak hartu zuen San Lazaroren ardurua, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kabiak programan sartu zuen. Eta Biharkok zerbitzua euskaraz eman nahi du. Hala, San Lazaroko langileek egoitzan euskararen gaiari lekua egiteko garaia zela eta beharra zegoela ikusi zuten. Diagnostika egin zuten, eta konturatu ziren ezagutza-datua beraiek uste baino altuagoa zela. 40-50 langile dira, eta diagnosiaren arabera, %66 dira euskara erabiltzeko gai; erabiltzen dutenak, ordea, %41 baino ez dira.

Horrek erakusten du langileen artean asko egiten dutela gaztelaniaz. "Jakin arren lankide batek euskaraz badakiela, nik neuk gaztelaniarako joera handia neukan, besteak beste jende erdalduna ere badagoe-lako hemen. Ohitu gara dena erdaraz egitera eta erdaraz egiten dugu, beti ere egoiliarrek euskaraz egiteko eskatzen ez badigute", dio Monica Masa San Lazaroko zuzendariak. Amaia Eitzagaetxeberria erizain-laguntzailearen ustez, orain egoera hori ez da hain nabarmena. "Bagaude langile euskaldunak, egunerokoa euskaraz egiten dugunak, baina guk ere gaztelaniaz gehiago egiten dugu lanean. Batzuek ezertxo ere ez jakitea oztzopo da, gainerakook euskaraz egitea harekiko errespetu falta dela uste duelako hainbatek. Beraz, ez dakigu zer egin: euskaraz hitz egiten segi edo gaztelaniara salto egin, baina azken hori eginez gero, akabo. Joera aldatzea nahi dugu, eta horretarako ahalegin berezia egitea".

EGOILIARREK NAHI BEZALA

Egoiliarrek zerbitzua euskaraz jasotzeko eskubidea dutenez, serio jarri eta jendearekin gehiago saiatu nahi dute. "Orain ez da hain nabarmena, baina izan da gaztelaniaz apenas zekien egoiliarrik. Guk euskaraz jakin arren, gertatu izan zaigu bakarren bati ez ulertzea, euskara oso itxia zuelako, baina horrelakoak salbuespenak izan dira", dio Amaiak. Bietara dakitenek beraiek aukeratu ohi dute, baina gaztelania izan ohi da gehienetan langile eta egoiliarren artean hitz egiteko erabiltzen duten hizkuntza.

Egoiliarrek agian ez dute aldaketarik sumatu, baina aldaketa igarri du Monicak. "Orain arte euskaraz sekula entzun gabeko erizain-laguntzaileak entzun ditut euskaraz egiten saiatzen, besteak beste euskara eskolak jasotzen ari direlako. Hori aurrerapausoa



Laura Daquinta, Amaia Eitzagaetxeberria eta Monica Masa Euskara batzordekoak.

da". Erdaldunak izan arren, hitz bakan batzuk badakizkitez ere bai, nahiz eta elkarrizketa luzeago bat izan behar dutenetan beste norbait joan behar izaten zaion laguntzera.


EUSKARA BULTZATZEKO EKINTZAK

Egoitzan langileen ahozko erabilera bultzatzen dihardute batik bat, baina beste lan-tresnetan ere egin dituzte aurrerapenak: kartelak bi hizkuntzatan jarri dituzte, eskuliburuak aldatu ahala euskaratzen ari dira eta beren egunerokotasunera moldatuko den hiztegi bat osatzen ere badihardute.

Horrez gain, euskararen inguruko beste hainbat jardura egin dituzte azken bi urteotan langileek: euskararen egunean hizkuntzaren inguruko galderekin ginkana egin zuten, eta Korrikan eta Korrika txikian ere parte hartu zuten langileek eta hainbat egoiliarrek ere bai. Bestalde, euskara eskolak jasotzen ere ari dira hainbat langile. Mailarik apalena duten 10 bat lagun ari dira talde batean oinarrizkoa ikasten, eta beste talde batean batu dira B2 mailako titulua atera nahi dutenak. Aurrerantzean ere egitasmo horiekin jarraitu nahi dute, eta ahal dela, euskara erabiltzeko joera handitu. "Saiatu behar gara egunerokotasunean idazten ditugun erregistroetan euskara gehiago erabiltzen eta norbaitek ulertzen ez badu, aldamenekoari galdetzen; hori da gure erronka".

Jakin badakite arazoa langileetan dagoela eta euskaraz egiteko ohitura hartzeko eskatu diete lankideei Euskara batzordekoek.

Biba Hasier!



Martxoaren 29an urtea beteko da Hasier Etxeberria kazetari eta idazle elgoibartarra hil zela, eta egin zuen dena euskarak akuilatuta egin zuelako, *Biba Hasier!* ekimena antolatu du Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak haren omenez, Elgoibarko Udaleko Kultura Sailak eta Etxeprek lagunduta. Hasier bera eta haren lana eta pentsamendua hobeto ezagutzeko helburuarekin antolatu dute ekimena, eta hiru adar izango ditu: *Begia zulotik* erakusketa, *Biba Hasier!* ekitaldia eta Hasierren etxeoekin eta lagunekin ondu dugun BARRENEKO gehigarri berezi hau.

Gaur hasiko da zikloa, Kultur Etxeko erakusketa-gelan, *Begia zulotik* erakusketaren inaugurazioarekin. Hilaren 28a bitartean egongo da zabalik, eta bertan, Aitor Etxeberria, Edu Arrillaga eta Joxe Ramon Elortzaren lanak egongo dira ikusgai, denak ere Hasier Etxeberriaren testuek lagunduta. Ekitaldia, berriz, hilaren 21ean izango da, Musika Eskolako auditoriumean, 19:30ean hasita. Etxeberriak gertuko izan zituen lagunak gonbidatu dituzte ekitaldira, tartean Mikel Hernandez Abaitua idazlea, Joxerra Gartzia idazle, kazetari, publizista eta unibertsitate irakasle izandakoa eta Oier Arantzabal Hasierren azken proiektua izan zen Zuzen atariko kazetaria. Ekitaldian, Etxeberriaren testuak irakurriko dituzte Urruzuno Literatur Taldean ibilitako elgoibartarrek eta zuzeneko musika jarriko dute Iban Urizar eta Aitor Nova herriko musikariek. Hori dena eta gehiago ere izango da, baina, Hasier Etxeberriaren akorduan egingo den ekitaldia.

Kazetaritza lanak: Ainara Argoitia

Diseinua: Zaloe Arnaiz

Hasier Etxeberria, ingurua ongarritzen zuen gizona

Familia abertzale eta euskaltzalean sortu zen Hasier Etxeberria Canales, 1957ko apirilaren 6an, eta aber-tzaletasunaren eta euskaltzaleatasunaren hazia luze gabe loratu zen bere izatean. Felix Etxeberria *Parapanek* eta Loli Canalesek izango zituzten hiru seme-alabetan zaharrena izan zen [gero etorri ziren Nekane eta Arantza], eta lehenengo biloba gizona, bai etxeberriatarretan eta baita canalestarretan ere. Eta horrek berak ere izango zuen eragina Hasier izan zen bezalako izaten. Danobateko langile batek irabazten zuenarekin bizi ziren Etxeberria-Canalesarrak, Loli gurasoenera ezkondu zelako eta artean guraso biak bizi zituelako; zazpi bizi ziren etxean, baina, hala ere, eginahalak egin zituzten seme-alabek eurek izan ez zuten hezkuntza jaso zezaten.

Lau urte betetzerako eskolatu zuten zaharrena, Hasier, eskola nazionaletan, 1961ean, eta Felixek bere liburuan esana duen moduan, berehala hasi ziren harengan erdal hezkuntzaren eragina nozitzen. Etxean, amaren aldeko aittita eta amarekin ere erdaraz jarduten zuen Hasierrek, euskaraz jakin bazekiten arren, atzendu xamar zutelako haiek, 1936tik aurrera jasandako errepresio frankistagatik. Eta kanpoko erdal eragin hori ezin eramanak eta ezin onartuak akuilatu zuen Felix herrian ikastola sortzera, Elgoibarko beste hainbat familia euskaltzalerekin batera. Itsu-itsuan bidali zituzten guraso haiek euren seme-alabak ikastolara, herrian azpiegituren eta legegaren aldetik ikastolak baino babes handiagoa eta baliabide hobeak zituzten ikastetxeak baziren garaian, eta ikastolako lehenengo promozio hartako ikaslea izan zen, jakina, Hasier. Hantxe egin zituen 8 urte bete arteko eskola-urteak, ikastolan egin zitezkeen guztiak, eta hangoa amaitutakoan Donostiako Santo Tomas lizeora bidali zuten gurasoek, ikasketak euskaraz jarrai zituzten. Apustua izan zen, langile-familia batean lehenengo haurarekin bakarrik egin zitezkeen inbertsio ekonomikoak.

Igande iluntzean hartzen zuen Donostiarako trenaren Hasierrek, eta astea han pasatuta itzultzen zen Elgoibarrera ostiralean, trenez. 9 urte zituen artean. Urrietako abade zen On Jazinto Errandorenaren arrebarenean igarotzen zuen astea Hernanin, eta pentsatzekoa da horren ume zela bizitako esperientziak zaildu zuela bizitzarako. “Argi dago gure aitak asko eskatu ziola Hasierri adin horrekin ezezagun batzuen etxean sartuz, eta bere familiarengandik aldentuz, baina, aldi berean, oso eskuzabala ere izan zen, aitaren egoskorkeriari esker egin




Hasier Etxeberria, amarekin.

zituelako garai haietan ikasketak euskaraz. Hasierrentzat ez ziren izan garai samurrak, kontuan izanda garai hartan espetxeratu zutela gure ama. Familiarentzat eta berarentzat egoera zaila zan zena etxekeengandik bananduta bizi behar izan zuen Hasierrek”, dio Arantzak. Baina esperientzia hura aberasgarri ere izan zitzaion. Gerora lankide eta lagun izan zituen batzuk ere ikaskide izan zituen Donostian, lizeoan, tartean Estepan Aldamiz-Etxeberria kazetaria. “Ume-umetatik oso independentea izan da Hasier eta nik uste dut Donostiara horren ume bidali izanak eragin zuzena izan zuela horretan”, zehaztu du Luis Azkuek, Hasierren beti-betiko lagunak.

Donostian, ez zegoen, baina, gustura, eta nerabe zela, Institutuko urteak egitera Eibarrera ekartzea eskatu zion gurasoek, etxekeekin bizitzeko eta herriko lagunekin egoteko, eta onartu egin zioten. Psikologia egin nahi izan zuen gero, “konbentzimenduz”, eta Valladolidera jo zuen, baina ez zituen ikasketak amaitu. Edozelan ere, Valladoliden ere laga zuen arrastoa. Kultur aldizkari bat sortu zuen, eta euskaltegia ere bai, beste ikaskide batzuekin batera eta bera izan zen irakasleetako bat. Gurasoek ereindako hazia hasia zen loratzen. “Gure aita eus-



 Arantza, Hasier eta Nekane neba-arrebak, gaztetako argazkian.


kaltzalea da beste ezeren gainetik eta Euskal Herriaren alde egin duen guztia kulturaren bidetik izan da: herriaren hizkuntza berreskuratzen laguntzen, herria osatzen, herriari dago-kiona ematen... eta Hasierrek ere hautu bera egin zuen”, dio arrebak, eta bat dator Azkue. Gazte denboran Elgoibarren dena erderaz egiten zutela oroitu du Azkuek, eta Hasier bera eskaini zitzaiola egunean ordubetez bere etxera joateko, euskara irakastera. 18 urte bete gabe zituen. “Bizitzan egin zuen guztia euskaragatik egin zuela esatera ausartuko nintzateke. Ezagutu dudan pertsonarik euskaltzaleena zen”, gehitu du, eta Valladolidera begira jarri gaitu berriro. “Han euskaltegia sortzea bada horren erakusle”.

Gizon handia txiki egin zenekoa

Dena ez zuen gozoa izan, baina, Valladoliden Hasierrek. Hantxe egokitu zitzaion soldadutza egitea, garaia baino beranduago, ikasketengatik luzapena eskatua zuelako. “Ikarragarri sufritu zuen han. Txiki-txiki eginda bueltatzen zen handik beti. Ezereza sentitu zen han. Bizitzan beti bere lekua egin zuenarentzat gogorra zen militarren artean ezer ez izatea. Hasierrek presentzia handia zeukan, eta han, militarren artean, ezer ez izatea iraingarri egiten zitzaion nonbait”, gogoratu du arrebak. Arantza, Gaztetxe mugimenduan zebilela, soldadutzaren kontrako talde antimilitaristan aritzen zen armarik bako gizartea lortzeko helburuarekin, eta ondo gogoan du Hasierrek zenbat adoretzen zuen egiteko horretan. “Hau amaitu behar egin da’ esaten zidan”.

Valladolideko derrigorrak amaituta, Hondarribian bilatu zuen lekua. Hantxe hasi zen lanean, HABE euskaltegian, euskara irakasle. Polizia euskara ikasten hasi zen garaia zen, ikasle asko ikaskide berrien kontra altxatu ziren sasoi, eta izan zituzten komeria batzuk. Gustuko ingurua topatu zuen, baina, Hasierrek. Hainbat lankiderekin batera errentan hartutako etxean bizi zen, “jende bereziarekin”, dio Arantzak, pisukideak euskal munduan erreferentziakoak izan direlako gerora. Dina Bilbao atleta bizkaitarra (Ondarroa, 1961-1997), Angel Valdes Elkar diskografiako arduraduna, Kaki Arkarazo musikari, soinu teknikari eta ekoizlea, eta Mikel Maioz Osakidetzarako euskara zerbitzuetako aldizkariaren arduraduna izan zituen pisu-


kide. “Iman modukoa zeukan bere gisakoeekin elkartzeko”, gehitu du Arantzak. Luisek dohaintzat du hori. “Beti jakin zuen jende aproposena inguratzen, bere ametsak eta proiektuak gauzatzeko. Bere aitagatik ere esaten da hori: bere helburuak lortze aldera hainbeste lagunengatik lankidetzeta eta talentua erakartzeko, motibatuzko eta inplikatzeko gaitasuna erakutsi duela beti. Aitaren traza handia zuen. Bazuen besteen dohaiak ikusteko bertute hori”. Oro har, baina, bazuen, taldea egiteko erraztasuna. “Lagunen oso laguna zen. Pare bat urtean zapaturu biltzen ginen gu, hogeit bat lagun, Hondarribian, bere etxean. Eukaristia esaten genien jatordu haiei. Bera arduratzen zuen guztiaz, jakina. Eta ez pentsa beti langostinoak jaten genituenik; zegoenarekin moldatzen zen, baina mokadu finak prestatzen zituen beti. Sortzailea zen horretan ere. Ezagutzen zuen jeneroa, gustatzen zitzaion ondo jatea, eta esku

 Victor Canales eta Felisa Vallejo, eta Lolita Canales eta Felix Etxeberria, Hasier, Nekane eta Arantza seme-alabekin.



paketetara...
arnas beretik. Baina...
eta nondik begiratu nahi den, ba hori, u...
aldera, duna gozetara edo harkaitz zorretzara, b...
arroken kontra eramaten nau ia beti, baina hori ez da hemen kontatu...
kontue da, jaletoez degokiden postaria izan ordez, kazetari bihurtuta. Pobre izatearen...
nik ere ez dakit oso ondo zer dela eta, kazetari bihurtuta. Pobre izatearen...
...zuzenez, zeren eta ni ez banintz familia behartsuan jaio, alajai...
...kistodemonio



 Ezkerrean, Hasier Etxeberria txalaparta jotzen, Aitor Etxeberria lehengusuarekin, Elgoibarren. Eskuinean, Irune Iriondo, Arantxa Etxeberria, Kontxi Ariznabarreta, Hasier Etxeberria eta Miren Muguruza Lapramendi baserrian.

ona zeukan”, dio Luisek. Hondarribiko kuadrillarekin ere urtero antolatzen zuen sagardotegirako ostera bere urtebetetze bueltan, eta orain, bera falta arren, jarraitzen dute lagunek Hasierrek usadio bihurtutakoarekin.

Sukaldeari lotua, kulturari emana

Gaztaroan, uda sasoietan, poltsikorako haina diru atera nahi izaten zuen, eta horretarako, Arriola harategian ibili zen lanean, okela zatitzen-eta. Han ere ikasi zuen haragi-piezak eta atalak bereizten. Tailerreko lanak ere egin zituen, Egañarenean.

Abilezia eta gustua zituen sukalderako eta hori, hein handi baten, amari zor diola uste du Arantzak. “Hasierrek zortea izan du gure ama feminista izan delako beti. Ez dut esango berdin hezi gintuenik, baina bere adineko gizon gutxi egingo zituztenak egin behar izan zituen Hasierrek: bazkaria gertatu, arropak zabaldu, sukaldea jaso...”. Sukal-

dean oroitzen du Arantzak, amari eta amamari bateko eta besteko errezetez galdezka. Valladoliden ere berak gertatzen zituen otorduak. “Orduan ez zen gaurko konturik. Urtean bi-hiru aldiz etortzen ziren. Orduan ez ziren gaur bezala tupperrekin atzera-aurrera ibiltzen gazteak” Eta jateko kontuetarako ere irudimena landu beharko zuen, amak ahal zuen diru gehiena bidali arren hilabeterako, berarentzat beti zelako gutxi.

“Bizizalea” ere bazela dio arrebak; bazekiela zentzumenak erabiltzen. “Gozatzen zuen artelanekin eta musika onarekin, gozatzen zuen irakurtzen, gozatzen zuen baratza txukunak ikustean, plazera zitzaion pagadi batean egotea eta gozatzen zuen jaten. Mokofina izan da denean”. Kulturak bizi zuen. “Nik garbi esan dezaket kulturarako interesa berak piztu zuela nigan. Musika talde asko ere bere bitartez ezagutu genituen guk. Nik ez dakit Donostian edo Valladoliden ingururatu zituen atzerriko rock taldeen disko haiek



guztiak, baina Loo Read, The Clash eta antzekoak bere bidez entzun nituen nik estreinakoz, Elgoibarren entzuten ez ziren garaian”, oroitu du Luisek. Gustatzen zitzaion irakurtzea, gozatzen zuen arteaz [urtero joaten zen Arcora Aitor Etxeberria lehengusu eta margolari handiarekin], eta bai, musika, bizi zuen. Etxean *tocadisco* zahar bat zela oroitu du Arantzak, baina euskal musika baino ez zela entzuten han, Hasierrek Azkuek aitatutako atzerriko taldeen diskoak inguratu zituen arte. Musikak betetzen zuen, baina letretarako zerak bizi zuen. Aitarengandik jaso zuela uste du Arantzak. Hasier ageri den beste argazki bat ekarri du mahai gainera. “Eibarren Arrate Kultur Elkarteak antolatzen zuen ipuin lehiaketa irabazi zuen eguneko da. Umeentzako halako lehiaketak antolatzen zituen elkarte bakanetakoa izango zen [Lurdes Iriondo eta Ana Etxeberria lehengusinarekin ageri da Hasier argazkian]”. Aitak akuilatu zuen Hasier idaztera, oso ume zela. Felix Etxeberriak *Zeruko Argian* idazten zuen guraso gazte zela, eta horrela animatu zituen semea eta bere ingurukoak ere *Umeen deia* liburuan idazten. Hantxe argitaratu zituzten Hasierren lehenengo literatura lanak izango zirenak. Irakurzaletasun handia izan zuen Hasierrek oso gazte ze-

netik, eta horrek “mundu bat zabaldu zion”. Liburu asko irakurri zituen afizioz eta ofizioz ere bai, eta harreman estua izan zuen idazle askorekin. “Beti gomendatzen zigun libururen bat. Bazekien gu beste klase batekoak ginela, eta zer ez irakurri garbi esaten zigun”, dio Luisek.

Harreman estua zeukan artistekin ere, eta eskulanetarako dohai halako bat ere bazuen. Itsas bazterretan bildutakoekin artelanak sortzen zituen edo kainaberentzako eskulturatxoak bestela. Bazuen itsasorako afizioa. Umetan, Ondarru eta Lekeitio

arteko haitzetara joan-etorrian igarotzen zuten udaren parte handiena Etxeberria-Canalestarrek. Hantxe ikasi zuten igerian ere umek. “Umetako oroitzapen gutxi dauzkat Hasierrrenak, baina ditudanak haitzetakoak dira”, esan du arrebak. Han hasi zen Hasier urpea ezagutzen, eta sasoi bertsuan hasi zen urperako ekipatzen er. Gerora, gazte denboran, sarri joaten zen Elgoibarko hainbat lagunekin Debara, olagarrotara-eta. “Fusila hartuta ibiltzen ginen arrantzan lau-bost lagun”, gogoratu du Azkuek. Gogokoa zuen itsasoa eta hark ekarritakoekin egindako apaingarriak oparitzea. “Artista zen senez, sortzailea”, eta beharbada, horregatik konektatzen zuen hain ondo artista jendearekin. Harreman berezia izan zuen Oteizarekin, eta baita Basterretxearekin ere [Basterretxearen alaba kuadrillakoa zuen Hondarribian]. “Gu gehiago gara lurrekoak, baina Hasierrrek oso garatua zeukan beste alderdi hori ere, kapazitatea behar delako jende horrekin elkarrizketa luzeak izateko. Bazuen magia hori, eta magia-jokoak egitea bera ere gustatzen zitzaion. Aitarengandik jaso zuen hori, gure aita ere ibili izan zelako ikastolan eta gaueko eskolatan magia-jokoak egiten”.

“Gurpilak baino buelta gehiago ematen zuen haren buruak. Beti zegoen sortzen, beti proiektu berriak amesten. Eta dena konpartitzen zuen gurekin”. Luisek esanetan, azkeneko 15-20 bat urtean idatzi zuen guztia emailez zabaltzen zien lagunei, argitaratu aurretik. Ez hori bakarrik. Buruan jira-bueltak zituen proiektuen berri ere ematen zien, nahiz jakin ekarpen gutxi jasoko zituela bueltan. “Gustatzen zitzaion. Ego hori ba-



Hasier, Elgoibarko lagunekin. Atzean, tente, Luis Azkue.

zuen”, zehaztu du. Zorrotza zen idazkeran, euskara zaindua zuen, baina beste ezeren gainerik, ausarta zen idazten. Ahoan bilorik gabe esaten zituen pentsatzen zituenak, eta horrek, jakina, bere ordaina izan ohi du: “Etxean denok izan gara halakoak, gauzak esan behar direnean esatekoak, eta halakoa izatea ez da beti erraza. Baditu ondorioak. Nik badaikit atzerakoa eragiten ziela askori Hasierrrek, bere izaerak, baina garbi daukat Hasierrrek beti aberasten zuela inguruan zuena; bere albotik urruntzean, zertxobait gehiagorekin partitzen zenuen, zerbait ikasita, zerbaitetaz ohartuta”. Gurekin ere oso zorrotza zen, baina izugarri aberastu gintuen”, dio Arantzak. Pako Aristi idazleak Hasier hil berritan argitaratutako testua apartatu du, Hasierrri buruz hil ondorenean esandako guztien artetik. “Izugarri gustatu zitzaidan, ez delako Aristi laudoriotan galtzekoa. Testuan kontatzen du sekulako bronka izan zutela behin sarean eta handik gutxira lana eskaintzen joan zitzaiola Hasier. Halakotxea zen gure neba”.

Abertzaletasuna

Abertzalea eta euskaltzalea zen eta “geneetatik zetozkion” bi printzio horien inguruan eraiki zuen diskurtsoa, Martxelo Otamendi *Berria*-ko zuzendariak Elgoibarren egin zioten agurrean esan zuen bezala. “Gu beti ibili gara mundu horren jiran: Elgoibarko Izararentzako, ikastolarako... diru eskean. Umetan ez dugu aita etxean ezagutu. Beti zebilen lanean, soldatapeko lanean ez zenean militantzia kontuetan. Ama bera ere kartzelan izan genuen hilabetez, nik 5 urte eta Hasierrrek 12 zituenean. Bizitza zaila izan dugu”. Etxeberria-Canalestarrek “ezker abertzalearen bueltakoak” izan dira beti, eta hori jaso zuten Hasierrrek eta bere bi arrebek umetatik, baina ez zen Hasier dena ametitzekoa. Kritikoetan kritikoena ere bera izan zen hala izan behar zuela begitandu zitzaionean, eta une gogorrak ere bizi izan zituen horregatik.

Baina, halakoetan eta bestelako minetan ere, letretan biltzen zuen sosegua. “Literaturak minak kitatzeko balio duen segurantziaz bizitu naiz harrezkero”, idatzi zuen Zuzen 2016ko irailaren 5ean minbizia berri zitzaiola esateko idatzi zuen testuan.

≡ GORKA ARRESE EDITOREA OHIA

Hasier Etxeberriari bere azkeneko hiru nobelak argitaratzen lagundu zion editorea da Gorka Arrese (Zarautz, 1965). Pasio bera konpartitu zuten biek, eta lagun handiak izan dira. “Askotan gogoratzen naiz berarekin eta oraindik negargura sartzen zait. Ez dut oraindik gaintitu”, dio Arresek. Etxeberria “idazle sen oso berezikoa” zela nabarmendu du, eta hark literaturaren eta idazle guztien alde egindakoa goratu ditu.



Arg.: Uxue Alberdi

“Euskal kulturari, eta bereziki literaturari, duintasuna eman zion Hasier Etxeberriak”

❖ Nolakoa zen Hasierrekin zeneukan harremana?

Konfiantza handikoa. Bera beti izan da eskuzabala, bai harremanetan eta baita lanean ere. Konplizitate handia izan genuen, eta elkarri asko lagundu genion. Bere nobelekin lagundu nion nik, bere azken hiru nobelak editatzeko zortea izan nuelako. Gure arteko konplizitate hori hortik dator neurri batean, baina baita *Sautrela*-ri esker ere, programa egiteko gauza asko galdetzen zizkidalako: idazleak nola zeuden, zer zetorren berria, programaren birtuteak eta ahalguneak zeintzuk ziren... *Sautrela*-k izan dituen langile asko berarengana hurbiltzen lagundu nion, asko Susako kide edo idazle izan direlako: Beñat Sarasola, Lander Garro, Eider Rodriguez, Jon Benito, Xabier Gantzarain...

❖ Zeintzuk ziren Hasier idazlearen balio nagusiak?

Kontalari sen handikoa zen, eta ez bakarrik idazteko orduan. Gauzak adierazteko eta ahoz esateko moduan ere kontalari sen berezia zeukan. Hori ez dakit nondik zetorkion, baina horrek asko lagundu zion ipuinak eta nobelak

idaztean. Sintesi kapazitate handikoa ere bazen; oso ondo egituratzen zuen beti esateko zeukana. Bere idazkera beti izan da gardena eta bizkorra. Ez zen asko endredatu zalea eta beti zuzen xamar ibiltzen zen esan nahi zuzen hartaraino iristeko. Bere pertsonajeak ere asko maite zituen, eta bere nobelen sustengu nagusia izan dira beti. Nik publikatu dizkiodan lehenengo bi nobeletan [*Eulien bazka* eta *Mutuaren hitzak*], Damian Arruti izeneko bat zen protagonista, eta Damianek bazuen Hasierren izaeratik parte bat. Ezin dugu esan bere alter egoa zenik, baina bazuen Hasierrenetik. Beti zituen kezka existentzialak, kezka sakonak, baina Damianek oso arin kontatzen zituen, endredoetan galdu gabe. Baina, Damian Arruti, zazpiki xamarra izanik, endredatu egiten zen, eta gizon problematikoa zen: erraz haserretzekoa, erraz adiskidetzeko, eskuzabala eta akzio handikoa. Hasierren tankera bazuen beraz batzuetan.

❖ Zeuk esana da idazleek asko erakutsi dizutela. Zer ikasi zenuen Hasierrengandik?

Erakutsi zidan nola egituratu daite-

keen nobela bat ondo, hasi eta buka bizi egiteko. Nobela baten konstrukzioa kontakizun luzea izaten denez, idazle asko galdu egiten dira bidean, baina Hasierrek zuzen eta bizi eramaten zintuen bukaeraraino.

❖ Editoreek liburua ondo promozionatzen ere lagundu behar dute. Hasier ez zen editorea, idazlea baizik, baina denbora gehiago eskaini zion bere denboran beste idazle batzuei lekua egiten.

Horixe azpimarratuko nuke, literatura ulertzeko zuen moduan dibulgazioari eman zion garrantzia. Bere liburuez ez zen asko arduratzen; gehiago arduratzen zen besteenez, eta oso garrantzitsua izan da euskal literaturari duintasuna ematen egin duen ahalegina. Besteenganako eskuzabalta sun hori askotan ez da oso aintzat hartua izaten, eta oso idazle gutxik egiten dute gainera. Koldo Izagirre da beste halako bat, besteen literaturaren balioak markatzen eta dibulгатzen saiatzen dena, baina Hasier izan da handiena. Hor duzu *Bost idazle* liburua, benetako obra. Ramon Saizarbitoria, Bernardo Atxaga, Koldo Izagirre, Anjel Ler-

txundi eta Joseba Sarrionandia elkarrizketatu zituen. Bost idazleak gizonekoak ziren eta kritika batzuk ere izan zituen horregatik, kontsideratzen ahal zituelako beste batzuk ere, adibidez Itxaro Borda edo Arantxa Urretabizkaia, baina berak bost hauen balioak markatu nahi izan zituen, bost hauek obra handiak eginak dituztelako genero ezberdinetan. Ausarta izan zen, gardena izateko asmoarekin beti, eta izugarri sufritu zuen horregatik ere, baina ez zuen sekula momentuan pentsatzen zuena esateko ikararik izan. Uste zuen, gainera, intelektual guztiek eduki behar zutela ausardia, seriotasuna, erantzukizuna eta ardura, momentuan-momentuan ikusten zutena gordin adierazteko eta sentitzen zuen berak ere bazuela idazle zen aldetik. Bere buruarekin zintzo jokatzeko ahalegindu zen, eta hori bera ez da oso dohai zabaldua.

❖ **‘Sautrela’ saioarekin lotuko dute askok, eta ez alferrik, oso berea zuelako. Zein ekarpen egin dio ‘Sautrela’-k literaturari?**

Euskal kulturari, eta bereziki literaturari, duintasuna eman dio, eta gainera, bidea eman du gure kulturen literatura ardatz inportantetzat har dadin, bai kultur jendearen artean eta baita hedabideetan ere. Hasierek ezinbesteko ikusten zuen ETBn literaturari buruzko saio bat egotea eta eginahalak eta bi egin zituen sortzeko, eta gero, mantentzeko. Telebistan gaur ez daukagu adibidez antzerkiari edo musikari buruzko saiorik, ez delako Hasierrren pareko burugogorrik agertu. Ez dago halako saiorik eta ez gara harritu ere egiten! Are, ez gara konturatzen zelako hutsunea den hori! Gogor eta zorrotz egin zuen Hasierek ETBn literaturaren alde, eta baita euskararen alde ere, euskararik ederrena, garatuena, eta berriena idazleen bitartez etortzen delako. *Sautrela*-k kulturaren bete duen papera historikoa izan da, eta hori Hasierrri zor diogu.

❖ **Kazetari senik ez zuela esan izan zuen, baina hala ere, kazetari handia izan zen, konbentzimenduetan sutua. Egunkaria Sortzen taldean elkarrekin jardun zenuten. Nola oroitzen duzu Hasier?**

Kazetaria zen kontratuz, baina, bai, bazuen hori: bere burua gutxiespenezko balorazio batez aurkezteko joera, nahiago zituen gauzak egiteko probetxugarria izan zekion. Egunkaria Sortzen taldean elkarrekin aritu ginen eta oso aktiboa izan zen. Eskuzabala izateaz gainera, bazekien ardura eta erantzukizun handiko gaietan parte hartzen. Beretzat *Egunkaria* sortzea gauza oinarritzkoa eta ezinbestekoa zen, eta burubelarri jarri zen hartara. Dinamizatzaile handia izan zen, batez ere *Egunkaria*-k kultura nola jorratu behar zuen pentsarazteko orduan. Bere etxean bertan afariak antolatutakoa da idazleekin-eta. Mahai handia izan du beti Hasierrrek sukaldetan, jende asko hartzea gustatu zaiolako, eta kontzientziazte lanak egiteaz gainera, kohesiorako lanak ere egiten zituen kultur jendearen artean.

Langilea zen Hasier, aktiboa oso, eta alor guztietan, gainera. Arterari buruz euskaraz egin dena ere berak egin du nagusiki. Asko zekien artearen historiaz eta gertutik jarraitzen zuen artearen aktualitatea. Harreman oso ona zeukan, gainera, artistekin, besteak beste Jorge Oteizarekin eta Nestor Basterretxearekin. Oteizak edozein momentutan deitzen zion Hasierrri etxera, barrua husteko, babesa eskatzeko edo besterik gabe, hau edo beste komentatzeko. Behin akordatzeko naiz purrustaka deitu ziola Oteizak, babes eske. Haserre zegoen Oteiza, arte mangante batek ez zuelako berari buruz gauza onik esan. *¿Hasier dónde estás? En Hendaia? Pues prepara la cena que ahora mismo voy nadando a hablar contigo.* Halaxe bota zion.

Hasier Etxeberriaren obra

NARRAZIOA

- ‘Ipuin ezberdinak eta erregalokoak’. 1984, Elkar.
- ‘Alajaineta’. 1995, Elkar
- ‘Karramarroaren aztarnak’. 1997, Elkar.
- ‘Gorroto haut’. 2002, Alberdania (Askoren artean idatzia)

NOBELA

- ‘Mugetan’. 1989, Elkar.
- ‘Arrainak ura baino’. 1999, Kutxa fundazioa.
- ‘Eulien bazka’. 2003, Susa.
- ‘Mutuaren hitzak’. 2005, Susa.
- ‘Iturrino handia’. 2007, Susa.

ANTZERKIA

- ‘Antso erregea’. 2004. Egilea editore

BILDUMA

- ‘Patri maitea...’. 2003, Alberdaria.

ELKARRIZKETA

- ‘Bost idazle Hasier Etxeberriarekin berbetan’. 2002, Alberdania.

GAZTE LITERATURA

- ‘Estatua baten historia). 1987. Elkar
- ‘Inesaren balada’. 2002. Elkar.

SUKADARITZA

- ‘Sukaliztegi partikularra’. 1996, Orain.
- ‘Erabateko sukaldia’. 1998, Tarttalo.
- ‘Gipuzkoako Gastronomía’. 2002, Gipuzkoako Kutxa.
- Sukaldian-1001 errezeta etxean egiteko’. 2004, Lur.
- ‘Porca memoria. recuerdo de comida y bebida de un par de verracos’. 2006, RBA

Liburu guztiez gain, Hasier Etxeberriak makina bat artikulu eta katalogo argitaratu zituen eta sari edo errekonozimenduak ere jaso zituen.

JOXERRA GARTZIA

IDAZLE, KAZETARI, PUBLIZISTA ETA
UNIBERTSITATE IRAKASLE IZANDAKOA

Euskadi Irratian ‘Sorgin afaria’ kultur saioa aurkezten zuen garaian ezagutu zuen Joxerra Gartziak (Legazpi, 1953) Hasier Etxeberria, literatur sari bat irabazi zuelako aitzakian elkarrizketa egin zionean. ‘Aizta gerlariarena’ zuen izenburua Etxeberriari saritu zioten lanak, eta horixe da Gartziak haren izatea deskribatzeko darabilen hitza: gerlari.



“Euskaraz ezer egin gabeko alorretan fundamentua egitea izan da bere lana”

❖ “Aitortzen diat beti miretsi izan dudala hire idazkera ez ezik, hire gerlari izaera; euskal saltsa guztietan aitzindari eta tiraka ibili behar etsigaitz hori”, idatzi zenuen Elgoibarren egin zitzaion omenaldirako.

Esango nuke halakoa izan zela; gerlaria zela eta egin behar zela uste zuena egitekoa, horretarako baldintzak egon ala ez.

❖ Zer beste ezaugarri zituen?

Hasierren unibertso itxuraz hain arotzarik horretan, zentro-zentroan, beti zegoen euskara. Joseba Sarrionandiak esana da euskara dela gure nazio bakarra, eta halaxe zen Hasierrentzat. Hasierren gan bi adar ikusten ditut: batetik, hedonismoa, eta bestetik, aberria. Sukalderako zuen zera horregatik, literatur gourmet zalea zelako, urpeko arrantza maite zuelako, eta arte plastikoen gozatzen zuelako, Hasier hedonista hutsa zela esango dute askok, atsegina beste ezereen gainetik jartzen zuela, baina berak hori dena ez zuen euskaratik aparte ulertzen. Gastronomía gustatzen zitzaion, bai, eta ondo jatea ere bai, denoi bezala, baina gastronomia euskaraz jorrazteko bulkada dago sukaldaritzako bere lan guztien atzean. *Zopa haundi* izan zen sukaldaritzari lotuta egin zuen bere lehenengo

programa telebistan, eta han bere bizio guztiak nahastu zituen. Sukaldari bat eta idazle bat eramaten zituen aldiro programara, eta sukaldaria lanean ari zen bitartean, idazlea eta bera berrikerian aritzen ziren. Ni neu ere gonbidatu ninduen behin Karlos Argiñanorekin batera. Formato berritzailea zen. Hasierrek ez zion begiratzeko estandarra zenari; egin behar zela uste zuena egiten zuen, eta kasu hartan sentitu zuen gastronomia benetako euskaraz jorrazteko beharra eta euskarazko telebistan unibertsalak izan zitezkeen edukiak euskaraz jorrazteko beharra, eta jorrazteko zuten. Euskara, gainera, edozer gauza kabitze modukoa zeukan berak: bizia eta jariotsua; tonuz eta esapidetz, oso aberatsa.

ETBko lehen urteetatik kulturaren dibulgazioan aitzindari izan zen, eta ordutik *Fahrenheit* saioa dut bereziki go-goan. Abangoardiako programa zen, artea, literatura eta esperimentazioa bartzatzen zituena. Gero etorri ziren *Arkupe*, *Babel* eta besteak, tartean, *Sautrela*. *Sautrela* neuri eskaini zidaten lehenengo produktorakoek. Unibertsitatean irakasle nabilen garaia zen, eta hainbat baldintza jarri nizkien nik, taldearen eta baliabideen aldetik. Hasierrek hartu zuen azkenean. “Ez dagoela baliabide-

rik? Berdin dio. Hau egin, egin behar da”, pentsatu zuen. Halakoa zen. Literaturari buruzko euskarazko programa duina egin beharra ikusi zuen, zimaur usainik gabea eta munduari begirakoa, eta egin zuen. Moralak hala aginduta sartzen zen beti saltsetan. *Zuzeu da* beste adibide bat. Garbi zeukan euskarak izan behar zuela zuena baino presentzia handiagoa Interneten, eta inork egiten ez zuenez, berak egin zuen.

Beraz, bai, bere lan guztietan ikusten da hedonismo hori, baina lana latz eginda lortu zituen denak. ‘Egin, egin behar da hori, dena den, ez da Hasierrena bakarrik izan, zorionez funtzionatu duen herrigintzan hori beti izan baita horrela. Ni oso barruan egon naiz beti Bertsozale Elkartearen eta han jendea ez zen egoten baldintzak noiz etorriko zain. Egunkaria Sortzen taldea datorkit burura. Han egoteko ohorea ere izan genuen guk biok, lana nagusiki beste batzuek egin bazuten ere. Hori bai, instituzioetan eta euskalgintzako beste zenbait sektoretan kalkulu posiblistagoak egin izan dira.

❖ Euskaraz zuen aberria. Aberriak berak ere eman zizkion lanak, baina.

Patri maitea lanaren aldeko apologia egingo dut hemen. Alberdaniaren argitaratu genion liburu hori, neuk

zuzentzen nuen *ZerBerri* sailean. Jen-deak oso gutxi ezagutzen duen liburua da, baina Hasierren nortasuna, ideologia eta abarrak eraiki nahi dituenak arretaz irakurri beharrekoa. 1999an hasi eta 2003ra arte, hamabost egunean behin *Gara* egunkarian Patri izeneko lagun fikziozko bati idatzitako gutunen bilduma da, eta gutun horietan gaurkotasunezko kontu guztiak aipatzen ditu Hasierrek. Horretan ere bere sailekoa izan da. Oso abertzale moduan identifikatu zen beti, eta Jose Mari Calleja kazetariak ETArekin aldekoa zela idatzi zuen, baina liburu horretako pasarte batzuetan, 2000. urte bueltakoetan, ETArekin kritika gordin eta zuzena egiten du Hasierrek. Eta erreparatu formatoari ere. Hasierrek Patri izeneko errefuxiatuari idatzen zion, non eta *Gara*-n. Eta jakina, herri santu honetan entzun behar izan zituen epelak. ETArekin agiriaren baten ere aipatu zuten bere izena, txarretarako jakina. Nik neuk ez neukan orduan halako liburu bat argitaratzeko asmorik, baina horiek guztiak ikusita eta jakinda Hasier nola ari zen pasatzen, argitaratzea erabaki nuen. Hasierren testamentu ideologiko moduko bat da *Patri maitea*. Ekidistantzia bat hartzea leporatu zioten, niri bezala, eta kolpe ustekabekoa izan zen hori berarentzat.

❖ **Literaturgilea eta eragilea izan zen literaturan. Zer azpimarratuko zenuke alor horretan?**

Lan on asko utzi zizkigun, baina bere literaturatik Hasierren euskara eta idazkera azpimarratuko nituzke. Euskara bizi eta jariotsua zuen. Badakit ez dagoela horren ondo ikusia literaturerituak aipatzen direnean euskararen bikaintasuna aipatzea, baina Hasierren kasuan, euskara, berezkoa zuena, baina era berean oso ondo landua zuena, izugarria zen. Hasierren prosak eraman egiten zaitu, eta hori berezkoa zuen. Literaturan, beti izan zen aurrera egitekoa, ausarta 'Hau komeni da, ba egin dezagun'. *Bost idazle* izeneko obra da

horren adibide garbia. Kapazitatea eta lanerako grina handia behar dira punta bakoitzeko bost idazle elkarrizketatzeko, tartean Sarrionandia bera, eta auserdia ere behar da, dena politikoki zuzena izan behar den garaian, aukeratu zituen bostak aukeratzeko. Ez dakit beste inor ausartuko ote zen hori egiten, politaren kalkulu bat egin gabe, baina Hasierrek beharren eta bere iritziaren irizpide oso garbiak zeuzkan, eta horietan arabera egin zuen aurrera, oztopoen gainetik.

❖ **Bazen beraz ekintzailea, egin behar zela uste zuena egitekoa, eta bazekien pertsona egokienekin inguratzeko proiektuak gauzatzeko. Aholkulari ere hartu izan zintuen zu zeu. Zer harreman izan zenuten?**

Egiten zuena egiten zuela, aholkulari hartzen ninduen beti; batzuetan gehiago ere bai: bere programaren atalen baten ardura emateraino, telebistako *Arkupe* kultur programan esate baterako. Hilean behin literaturari buruz egiten zuten saioaren ardura neuri eman zidan. Bagenuen elkarrenganako halako *feeling* bat. Euskadi Irratian lanean ari nintzela ezagutu nuen, berak 26 bat urte zituenean eta nik 30 bat. *Aizta gerrariarena* ipuinarekin literatur sari bat irabazi zuelako aitzakian elkarriketatu nuen, eta esan behar dut ipuin hartan ere ikusi nuela gerora bere lan guztietan ikusi dudana: bere euskararen barneindar hori. Elkarrizketa hartan bertan piztu zen gure arteko zera, bera hil arte iraun zuena. Gero, irratirako oposizioak gaintitu zituen berak, eta biok irratan ari ginen sasoiari, sarri irteten ginen elkarrekin pintxoak-eta jatera, harekin ezin zelako edozer jan. Hondarribiara ere joaten nintzen bere etxera bazkaltzera, eta bera ere etortzen zen gurera. Sukaldean, irudimen handikoa eta disziplinatua zen.

Gero, bera telebistara joan zenean, urrundu ginen pixka bat, baina zerbait berezia zegoen aldiro elkarrengana jo-

zuten genuen. Xabier Lete hil zenean esate baterako, unibertsitatetik etorriarazi ninduen *Sautrela*-n hitz egitera. Horrez gain, bere hiru bat libururen aurkezpena egiteko ere jo zuen niregana. Beti izan naiz bere aldamenean, *Pepito grillo* bezala. Azkenera gero eta gutxiago elkartzen ginen, baina urtean behin behintzat elkarrekin bazkaltzen genuen, gure urtebetetze egunen bueltan. Apirilaren 6koa zen Hasier, eta 14koa naiz ni. Janak eta edanak plazer handia ematen ziguten, baina solasak aise gaintzen zuen hori dena.

❖ **Kazetaria izan zen, kazetari-senik ez zuela esan izan zuen arren. Nolako kazetaria zen?**

Kazetaritza berezitan maisua izan da. Izan du edo zortea edo abildadea, bolada batzuetan salbu, bere gustuko programak egiteko, eta nik uste dut hor ez zuela bereizten lana eta hedonismoa. Nik ikusten nuen *Sautrela* egiten eta pentsatzen nuen oportetean zegoenean ere ezin zezakeela hark gehiago gozatu. *Bost idazle* liburua kazetari on baten lan on bat da, BBCren mailakoa.

❖ **Ekarpenik handiena zeri egin zion, euskarari?**

Nik esango nuke euskararen motibazioak bultzatuta egin duela egin duen dena eta egin duen dena izan dela ona. Landu dituen alor guztietan euskarari mesede handia egin dio, lana latz eginda, baina alor guzti horiei eman die asko Hasierrek. Nik ez dakit adibidez arteari buruz zerbait esan genezakeen Hasierren lanak aintzat hartu gabe, eta berdin literaturaz. Bere literaturan utzi dizkigu pertsonaje eta eszena batzuk ikaragarriak, antologikoak. *Eulien bazka* liburuko detektibea, erdiska bera dena, sekulakoa da. Euskarak akuilatuta joan da bazter guztietara, baina ez nuke esango euskarari egin dionik ekarpen handiena. Euskaraz ezer egin gabeko alorretan fundamentua egitea izan da beti bere lana.



Euskal Letren Marteko Errepublika

(HASIER ETXEBERRIAREN OMENEZKO ZIENTZIA FIKZIOKO IPUIN LABURRA)

≡ Juan Luis Zabala / Idazlea

Hasier Etxe-
berriaren
irudia ageri
da hizketan, hogeita
pantaila txiki di-
tuen panel handi

batean piztuta dagoen pantaila bakarrean, *Sautrela* saioaren 448. atala agurtzen, ETB1ek 2016ko ekainaren 25ean emandakoa, berak aurkeztu zuen azkena:

– Gaur dugu azkena, baina irailean, dena ondo bidean badao, hementxe egongo gara, osasunak laguntzen badigu bederen. Ordura artean, uda ederra pasatu eta, badakizue, beti bezala, zintzo ibili. Ala ez. Hori zeuk egin beharreko hautua da.

Saioa amaitu eta pantaila txikia itzaltzearekin batera, plano zabaldua, ikusi da itzali berri den pantaila espazio-ontzi baten barruko telebista batekoa dela, era horretako ibilgailuetan ohikoak diren aparatuak daudelako inguru osoan, forma, tamaina eta kolore askotako aginte-botoiz hornituak. Kameraren mugimenduak hura gidatzen ari diren eskuen jabearen aurpegia erakutsi du azkenean, selfie bat egiten ariko balitz bezala kokatua baitago kamera aurrean, Astronauta bat da, espazioko trajerik gabe, ontziaren barruan halakorik ez baitu behar. Trajearen ordeaz, lan-jantzi mehe bat du soinean, eta lan-jantziaren bi mahuketan ikurrina bana.

– Ongi etorri, ikus-entzule, euskal letren beste errepublika honetara –esan du astronautak, kamera berari begira geldirik utzita–, *Sautrela* baino xumeagoa eta pobreagoa, baina borondate onez eginga. Leire Larrañaga naiz, Martera etorri eta planeta gorri honetan bakarrik eta inkomunikatuta geratutako astronauta, hala nire espediziokideek nola espedizioaren Lurreko arduradunek hiltzat emana eta hemen abandonatuta utzia. Bideo hau eta ondoren grabatuko ditudan ikusten dituzunerako, hila izango naiz, hemen bizpahiru hilabeterako janaria baino ez baitaukat eta Lurrean inor ni bizirik nagoela jabetu eta handik beste inor nire bila etortzerako urtebete igaroko baita gutxienez. Bai, zuzen zabilta: Andy Weirren *The Martian* nobelako –eta Ridley Scotten izenburu bereko fil-

meko– protagonistari, Mark Watneyri, gertatu zitzaiona gertatu zait niri. Baina ni ez naiz Mark Watneyk espazio-ontziaren barruan sortu zuenaren moduko berotegi bat eratzeko gauza izan, nazkatzeko lain patata izateko.

“Errealitatearekiko esperantza oro galduta, fikzioa dut hemen eta orain helduleku nagusi, euskal literaturakoa zehazki, espediziora aisialdirako ekarri nuen materialaren artean euskal literaturako ehunka libururen e-Pubak eta Hasier Etxeberriak *Sautrela* saioan egindako elkarrizketa guztien grabazioak –laurehundik gora, alajaineta!– dauzkadala baliatuta.

“Bai, badakit zer esaten ariko zaren... Nik ere nahiago nituzke, bai, paperezko liburuak, baina e-booka erabili beharra daukat nahitaez, espedizioaren Lurreko arduradunek ez zigutzelako espazio-ontzira paperezko liburuak ekartzen utzi. Zergatik? Ez dakit, baina ez ninduen harritu debekuak. Ikusi al duzue inoiz paperezko liburu normal bat espazio-ontzi baten barruan? Irudikatzen al duzue paperezko liburu betetako apalategi bat espazio-ontzi bateko aparatu konplexuen artean? Baita zera ere! Hori baino gauza arraro eta inkongruenteagorik...”

“Irakurtzea bakarkako plazera da, eta horixe da planeta gorri esker ga honetako nire egun gainerakoan guztiz monotonoetan geratzen zaidan plazer ia bakarra. Baina bakarkako plazer horren lagungarri estimatzekoak dira Hasier Etxeberriaren *Sautrela* saioko elkarrizketa patxadatsu eta dotoreak. Irakurtzeak nire une bateko plazeretik haragoko balioa eta interesa duela sentiarazten didate elkarrizketa horiek, irakurtzeak euskal letren errepublika bateko herritar librea egiten nauela.

“Hemendik aurrerako bideoetan, gustu baduzu, nire irakurketetan eta Hasier Etxeberriaren *Sautrela* saioko elkarrizketan oinarritutako nire komentarioak aurkituko dituzu, euskal literaturaren irakurle xume eta apal baten komentario gisa berean xume eta apalak, baina libreak eta zintzoak, grinatsuak ere bai inoiz, Marteko bakardade etsi honetan mamituak denak, euskal letren errepublika librearen tanta xumeak ustez amaierarik gabekoa den unibertsoaren zabaltasun guretzat ezin ulertuzkoaren barruan”.

Eneko Iturbe diseinatzailearen lan bat aukeratu dute Bilbao International Art & Fashion lehiaketako finalisten artean

Mundu osoko diseinatzaile gazteek parte hartzen duten Bilbao International Art & Fashion (BIAAF) nazioarteko moda lehiaketan Eneko Iturbe Balzola diseinatzaile elgoibartarrak aurkeztutako lan bat aukeratu dute finalerako. 90 herrialdeko 1.673 diseinatzailek aurkeztu dituzte lanak, duela bi urteko parte hartzaile kopurua bikoiztuz, eta horietatik 30 izango dira finalean.

Aurkeztutako diseinuen artean munduan inspiratuta edo honen zuzenean lotuta egon behar zuten. Eneko Iturbek *Terre* izeneko bilduma aurkeztu du lehiaketara, Joaquín Vaquero Palacios arkitekto eta pintore espainiarraren lanetan oinarrituta. "Vaquerok Espainia barrualdeko herriak margotu zituen hogei-garren mende erdialdera, eta margolan horietan inspiratu naiz, bertan erabiltzen dituen koloreek eta tonalitateek erakarrira bereziki". Gainera, Frankismoa jasan behar izan zuten Espainia barrualdeko herrietako historiari ere erreparatu dio, "ze janzkera zuten ikertzen hasi nintzen garai hartako hainbat irudi hartuta".

Finalerako sailkatutako diseinatzaileen artean munduko hamar diseinu eskola onenetariko ikasleak daudela azpimarratu dute antolatzaileek. Hortaz, lehia gogorra izango du diseinatzaile elgoibartarrak.



Eneko Iturbe diseinatzailea.

Hiru diseinu berri

Finalistek maiatzaren 18ra arteko epea dute hiru diseinu berri aurkezteko. 25.000 euro izango dira saritan eta ekainaren 13an banatuko dituzte. Moda industriako eta kultur munduko pertsona esanguratsuek hartuko dute parte ekitaldian, eta finalistek aurkeztutako lanak Azkuna Zentroan jarriko dituzte ikusgai, egun horretatik aurrera.

'Motxailak' jai-giroan ibili ziren Mendaron



Motxailak hartu zuten asteburuan Mendaro. Barixakuko bertso saioan San Agustín aretoa bete egin zen bertsozalez eta hainbat gai Mendarori lotuak izanik, herritarrengana gerturatu ziren bertsolariak mendarorarrak gozaraziz. Zapatuan Aitzbeltzen hasi zuten eguna *motxailak* eta eguerdian gaztetxean jende ugari elkartu zen herri-bazkarian. Motorrak berotu ondoren, festa giroak eta musikak lagundu zituen jai-zaleak eta Agosti eta Barrenaren trikiti doinuekin izan zen goizaldera arte ibili zenik.



Manuela Moreno Rico

2018ko martxoaren 9an hil zen, 82 urte zituela. Haren oroimenez meza izango da, zapatuan, martxoaren 17an, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak



▶ NEREA SASIAIN

MINTXETA TALDEKO ANTIXIXIKARIA

**“400 metrokoan
Euskadiko
errekorra ontzea da
orain arteko nire
emaitzarik onena”**



Pista estaliko Espainiako Atletismo Txapelketa jokatu zuten jubenil mailako atletek Malagako Antequera hirian, martxoaren 10ean eta 11n. Mintxeta Atletismo Taldeak bi ordezkari izan zituen: Martin Hernandezek ez zuen finalerako sailkatzerik lortu 800 metrokoan. Nerea Sasiain, berriz, finalerako sailkatu zen 400 metroko lasterketan; eta laugarren egin zuen sekulako maila izan zuen finalean. Gainera, finalerdietan, 20 urtez azpikoen Euskadiko errekorra ondu zuen 56 segundo eta 77 ehuneneko denbora eginda.

- ASIER ORBEA -

◊ **Laugarren egin zenuen pista estaliko Espainiako Txapelketan, 400 metrokoan. Nolako izan zen Antequeran pasa zenuten asteburua?**

Finalerdietakoen artean bigarren markarik onena nuen eta bosgarren kaletik korrika egitea tokatu zitzaidan. Seigarren kalean, onenean, egin zuen korrika denbora onena zuen aurkariak, Laura Centella kataluniarrak. Egoera perfektua zen niretzat, oraindik ez baitut ikasi ze erritmotan irten behar naizen, eta primeran datorkit erreferentziak ondoan izatea. Azkarregi hasi eta indarrik gabe ailegatzeko beldur nintzenez, oso motel hasi nintzen. Lehen itzulia egitean, 200 metroan, laugarren postuan nindoan. Erritmoa bizkortu behar izan nuen, baina ahalegin handia eginez, bigarren kaletik aurreratu behar izan nituelako aurkariak. Ehuneko bakarragatik irabazi zidan Centellak. Hiru serietako irabazleak eta denbora onenak egin genituen hirurak pasatu ginen finalera.

◆ **56 segundo eta 77 ehuneko denborarekin hogei urtez azpikoen Euskadiko errekorra ondu zenuen finalerdietan.**

Nire marka pertsonala 57 segundotik jaitsi nahi nuen Espainiako Txapelketa eta Euskadiko errekorra ontzeak sekulako poza eman zidan. Adin maila guztiak kontuan hartuta denboraldiko Euskadiko marka onena dela uste dut gainera.

◆ **Nola moldatu zinen hurrengo egunean jokatu zenuten finalean?**

Hirugarren kaletik egin nuen korrika finalean. Finalerdietan baino bizkorrago irten nintzen eta hobeto kokatuta ailegatu nintzen proba erdira, kalea aukeratzeko borrokara (*pista estalian bakoitzak bere kalean egiten ditu lehen 200 metroak). Une horretan, aurreratu nahi nuen aurkari batek estropezu egin eta bultzada bat eman zidan. Lehen kaletik hirugarrengoraino eramanez ninduen bultzadak, eta ezin izan nuen hor galdu nuen denbora eta erritmoa berreskuratu. Lehen hirurak ezingo nituela harrapatu ikusita, helmugako zuzenean erritmoari eutsi eta indar guztiak hustu gabe iritsi nintzen helmugako marrara. Belaunean aurkariaren oinetakoetako iltzeek eginiko zauria nuela konturatu nintzen amaieran.

◆ **Hortaz, lortu zenuen laugarren postuarekin pozik ala penatan zaude?**

Lortutako postua baino gehiago nola lortu nuen da garrantzitsuagoa. Ez dakit hirugarren egitea lortuko nuen, baina indartsu ikusten nuen neure burua. Amorrua eman zidan bultzada horren ondorioz neukan onena ezin eman izanak. Izan ere, gertatuak gertatuta ere, 57 segundotik jaitea lortu nuen bigarren egunez jarraian. Horrek ere asko poztu nau, ez dela zorte edo egun bateko kontua izan erakusten didalako.

◆ **Antequeran jokatu zenuten 400 metroko probak sekulako maila izan zuen. Andrea Jimenez irabazleak (54:26) Espainiako errekorra ondu zuen, eta denboraldiko Europako markarik onena - eta munduko hirugarrena egin zuen.**

Bai, Espainiako atletismoaren historiara pasatu da gure lasterketa, lehen lauron denborak 18 urtez azpikoetan sekula egin diren hamar markarik onenen



artean daudelako: lehen bietan irabazlearena eta bigarrenarena, laugarrenaren hirugarrenarena eta bederatzigarren denborarik onena da nirea.

◆ **Aurten etengabe hobetu duzu zure marka pertsonala.**

Egindako lanaren fruitua da, entrenamendu kopurua bikoiztearen ondorioz. Eta ez bakarrik kantitatea, hiru egunez entrentzetik sei egunez entrentzera; entrenamenduen kalitatea hobetu dugulako ere bai. Entrenatzaileak (Mikel Anakabe) oso ondo egituratu du denboraldia, atsedanak noiz hartu eta noiz lehiatu oso ondo tartekatuz.

◆ **200 eta 400 metroko lasterketetan lehiatzen zara. Zeinetan moldatzen zara hobeto?**

400 metrokoa da nire proba. Ez naiz oso esplosiboa eta nire irteera motelak asko zigortzen nau esprint motzetan. 400 metroko lasterketak, luzeagoak izaterakoan, aukera ematen didate hasieran galdutako segundo horiek berreskuratzeko eta ondo datorkidan erritmo bat hartzeko. Teoriak dio lehen 200 metroak, edo 300 metroak ahal bada, topera egin behar direla eta azken 100 metroak ahal den moduan egin. Nik aldiz, indarrak neurtzen ditut lehen 200 metrotan eta dena eman amaieran. Hala eskatzen dit gorputzak. Arrisku bat dauka taktika honek, dena ematen beranduegi hasiz gero, guztiz hustu gabe amaitu dezakezula proba. Horixe da entrenatzaileak beti leporatzen didana. Borroka handia izaten dut nire buruarekin, indartsuegi hasiz gero ez ailegatzeko beldurrak gain hartzen didalako. Indartsu hastera nahi izan arren ere, kosta egiten zait. Buruak agintzen du.

◆ **Mugarik ikusten diozu zure buruari?**

Mugak jartzea zaila da. lastik bi segundoan ondu dut nire marka. Mundu bat da hori distantzia hauetan. Marka hori ontzen saiatuko naiz aire libreko denboraldian, besteak beste, denbora hobek egiten direlako kurbak zabalagoak direlako eta abiadura handiagoa hartu daitekeelako. Entrenatzaileak edukiko du behar bada denboraren bat buruan baina nik ez dakit noraino ailegatu naitekeen (irribarrez). Pista estaliko denboraldian eduki ditudan helburu antzerakoak izango ditut aire librean, udan Gijonen jokatuko den finalerako sailkatzea eta Euskadiko errekorra ondu ezin badut ahalik eta gehien gerturatzea.

◆ **Postu on bat lortzeak ala denbora ona egiteak asetzen zaitu gehiago?**

laz Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak irabazi arren, ez nintzen gustura gelditu denborekin. Nahiago dut laugarren egin marka ona bada, lehena marka txarrarekin baino. Horregatik Euskadiko errekorra ondu izana da orain arteko nire emaitzarik onena.

◆ **Egiten ari zaren denboraldiak saria ere izan du, ezta?**

Bai Espainiako Atletismo Federazioaren deia jaso dut Aste Santuan Murtzian egingo duten kontzentrazio batean parte hartzeko. Abiadura-lasterkariak elkartuko gara, aurkari izan ditudan hainbat neska tartean. Ez nuen espero deia eta ilusio eta gogo handiarekin joango naiz.

◆ **Non ikusten duzu zure burua hemendik urte batzutura. Ze**

amets dituzu?

Oraingo erritmoan jarraitzea gustatuko litzaidake, ikasketak eta atletismoa uztartuz. Itxaropen handiegirik ere ez dut izan nahi eroriko handirik ez hartzeko gero. Maila honi eutsiz gero, pozik.

◆ **Euskal dantzetan ere bazabiltza eta Soinu Zahar txapelketetan parte hartu izan duzu. Bateragarriak dira? Zer baitetan lagundu dizu afizio batek besterako?**

Bai. Indarra eta malgutasuna lantzen dira batean zein bestean, bakoitzean bere modura, eta ondo etorri zaizkit. Atletismoa gogokoago dut entrenatzerako orduan, eta bietako bat aukeratu behar izanez gero korrika egiten jarraituko nuke.

◆ **Nola hasi zinen atletismoan eta Mintxeta taldean?**

Eskubaloian hasi nintzen, baina segituan konturatu nintzen ez zela niretzako kirola, eta halaxe iritsi nintzen atletismora, beste kirolekin lekurik ez duten beste asko bezala. Egia esan, atletismoak berak ere ez zidan graziarik egiten. Ez zuen nire arreta erakartzen. Beti batera ibiltzen ginen lagun batek elkarrekin hasteko eskatu zidalako hasi nintzen Mintxetan, duela zortzi urte. Hasieran krosetan ibiltzen ginen. Hamabost bat urterekin kontzentrazio batean hartu nuen parte Saloun eta 300 metroko proba korritu nuen estreinako aldiari Espainiako Txapelketa joateko gutxienekotik segundo bakarrera gelditu nintzela esan zidaten. Esan zidaten ea zertan ari nintzen iraupen luzeko lasterketetan; pasatzeko motza-goetara. Kaso egin nien, eta asmatu nuen.

◆ **Martxoaren 8a pasa berri da. Parekidetasuna indarrean dago atletismoan?**

Atletismoa emakumeen eta gizonen berdintasuna gehien errespetatzen duen kirolekoa dela uste dut. Parean gaudela uste dut. Elkarrekin entrenatu eta lehiatzen gara, eta Munduko txapelketan eta ia antzera tratatzen dituzte sexu bateko zein besteko atletismo izarrak.



Erraketistei buruzko erakusketa martxoaren 26ra arte ikusgai Olaizagan



Raketistak erakusketa antolatu dute Elgoibarko Udalak, Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak eta Raketistak Lehen eta Orain Kultur eta Kirol elkarteak. Martxoaren 12tik 26ra bitartean Olaizaga Kiroldegiko kafetegian egongo da ikusgai. Martitzenean, berriz, frontoietan ibilitako emakumezko erraketista profesionalen testigantzak jasotzen dituen *Raketistak Lehen eta Orain* izeneko dokumentala eman zuten musika eskolako auditoriumean. Elgoibarren hainbat erraketista izan dira, besteak beste: Angela Juaristi, Maria Angeles Txurruka, Felisa Muguruza, Juanita Arrillaga Garate, Sabiñe Aranburu, Salome Agirregomezkorta, Maria Agirregomezkorta eta Maria Arrillaga Garate 'Arane I'.

Imanol Cid txapeldunorde Espainiako Mushing Txapelketan

Espainiako Mushing Txapelketa jokatu zuten martxoaren 3an eta 4an Baqueira Bereten, eta 150 lehiakidek hartu zuten parte, hainbat modalitateetan. Estreinakoz parte hartu zuten arren, Imanol Cid elgoibartarrak bigarren postua eskuratu zuten bi txakur eta lerako modalitatean. Atila eta Darko izeneko txakurrekin lehiatu zen Cid. Elur gainean gutxi ibilitako txakurrak izanik, nola ibil zitezkeen erreferentziarik gabe joan zen txapelketara. Hamabost lehiakide izan zituzten euren modalitatean eta txakurrak primeran moldatu ziren Baqueira Beret eski estazioko ibilbide elurtuetara. Bi jardunaldi zituen txapelketak eta bietan bigarren postua eskuratu zuten Imanol Cidek eta bere txakurrek. Gaizka Barahona Royo musherra izan zen onena bi jardunaldietan eta berak irabazi zuten txapelketa.



Aimar Erostarbe azkarrena kadeteen lasterketan



Txirrindulari oñatiarrak nabarmendu ziren kadete mailako txirrindularientzako 26. Elgoibarko Lagun Taldea Saria lasterketan. Aimar Erostarbe txirrindulari *txantxikua* izan zen azkarrena, eta taldekako sailkapen nagusia Ulma Aloña Mendi taldearentzat izan zen. Mintxetan hasi eta amaitu zen estreinakoz Elgoibarko Lagun Taldeak antolatutako proba. Erostarbek 17 segundoko aldea atera zion bigarren egin zuen Beñat Carbayedari (Bazpi).

Bihar hasiko dira pala txapelketak



Emakumeen binakako zazpigarren pala txapelketan 16 bikotek eman dute izena eta 28 bikote arituko dira lehian gizonen hirugarren pala txapelketan. Antolatzaileek bi pala txapelketak apirilaren 3an hastea aurreikusi bazuten ere, hasiera aurreratu behar izan dute bikote askok izena eman dutelako. Bihar, martxoak 17, jokatuko dituzte aurreneko partidak. Martitzen, eguen eta zapatuetan jokatu da txapelketa Kalegoen Plazan (euria egingo balu Elgoibar Ikastolako frontoian).

Maite Maiorak Tarvisio Winter Trail lasterketa irabazi du Italian



E lur gainean ere moldatzen dela erakutsi du Maite Maiora antxitxikari mendaroarrak. Tarvisio Winter Trail izeneko proban hartu zuen parte martxoaren 10ean Italian, eta garaipena lortu zuen. Maiorak 19 segundoko aldea atera zion bigarren emakumezkoari, Antonella Confortola italiarrari. Sailkapen nagusiko 20. postuan ailegatu zen Maiora helmugara, Emanuele Manzi irabazlearengandik 14 minutura. Friuli-Venezia-Julia eskualdean kokatuta dagoen Tarvisio herrian, Eslovenia eta Austriako mugatik gertu, jokatu zen lasterketa. Fusine lakuaren inguruan aritu ziren korrika, elurutako para-jeetan, Magart mendi katearen magalean.

Plaza pilotariz bete zuten 21. Pilota Egunak



Kalegoen plazako frontoia irristakor eta arriskutsu laga zuen euriaren erruz ezin izan zituzten Pilota Egunerako aurreikusita zeuden final guztiak jokatu. Hala ere, giro eta lehia politak laga zituen gaztetxoek artean pilota eta kirola sustatzeko ekimenak. 6 eta 12 urte arteko umeez hamalau final jokatu behar zituzten arren, hamargarren partida amaitzearekin bat euria hasi zuen eta Ikastolako eta Lagunak Pilota Eskolako arduradunek azken lau partidak bertan behera lagatzea erabaki zuten, inork minik ez hartzeko. Edonola ere, parte hartzaile guztiak jaso zituzten oroigarriak. Gainera, sari banaketa ekitaldian, partiden hasieretan bezala, Aspe enpresako pilotari profesional Aitor Irustaren laguntza izan zuten antolatzaileek.

Haundi ikustera Beasainera joateko autobusa, debalde

Haundik Beasainen aurka jokatu du domekan, martxoaren 18an, Loinatz futbol zelaian. Igoera lortzeko ahaleginean partida garrantzitsua dela-eta, autobusa antolatu du C.D. Elgoibarrek Beasainera joateko, duela gutxi Soralezera joateko egin zuen moduan. Autobusa Txankakoako zubitik irtengo da 15:45ean, partida 17:00etan jokatu baita Beasainen. Doakoa bada ere, interesatuek Jai Alai eta Kaia tabernetan eman beharko dute izena, bari-xakuko 18:00ak baino lehen.

Mendiko eskiko Euskal Kopa Larizentzat



Euskal Mendizale Federazioaren mendi eskiko 2018ko Txapelketetan azkena, taldekakoa, joan den asteburuan jokatu zuten Europako Mendietan, Regil Zeharkaldiaren 43. edizioan. Haizete handiek baldintzatutako proba izan da aurtengoa, ibilbideak asko aldatu eta egokitzeraino. Baldintzak baldintza, proba jokatu zuten zapatuan, eta Manu Merillas eta Wilfrid Jumere bikotea izan zen azkarrena gizonetakoetan, eta euskal selekzioko Lide Leibar eta Igone Camposek osatutakoa emakumezkoetan. Iñigo Lariz elgoibartarrak eta Igor Alzelai legazpiarrak osatutako bikoteak irabazi zuten joaneko zegoen Euskal Herriko Taldekako txapelketa. Era berean, 2018ko Euskal Kopa lehiaketa honekin erabaki da. Lau proba jokatu (Causiat Extreme, Bandres-Karolo, Alti-Toy eta Regil), Iñigo Lariz gailendu da senior gizonetako mailan.

LANA.....
Eskaerak

Tabernak garbitzen edo adinekoak zaintzen (orduka edo barne langile) lan egiteko prest. Berehala hasteko gertu. ☎ 632 896 116

Adinekoak zaintzen eta etxe garbiketan lan egiteko gertu. Prestakuntza ikastarora egiten. ☎ 659 578 601

Adinekoak zaintzeko prest. Orduka, asteburuetan... ☎ 674 579 736

Adinekoak zaintzen, ospitaletako gaueko zaintzan eta garbiketan lan egiteko gertu. Esperientzia eta erreferentziak ditut. ☎ 626 407 923

Garbiketan, adinekoak zaintzen, ospitaletako gaueko zaintzan eta asteburuetan barne-langile lan egiteko gertu. ☎ 631 506 763

Baserrian, sukalde laguntzaile, adinekoak zaintzen eta obretan lan egiteko prest. Esperientzia. ☎ 631 680 819

Garbiketa lanak egiteko eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. Esperientzia eta gidabaimena ditut. ☎ 688 712 075

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest. Arratsaldeetan eta asteburuetan. Orduka. ☎ 612 493 242

Adinekoak zaintzen eta garbiketa lanean aritzeko prest. Arratsaldez. ☎ 638 338 816

Garbiketa lanak egiteko eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. Esperientzia daukat. ☎ 688 712 075

Adinekoak zaintzeko prest barne-langile moduan. ☎ 631 406 177

Umeak edo nagusiak zainduko nituzke edota garbiketa lanak egin. Orduka, nahiz asteburuetan. Ospitaletan gauak pasatzeko ere prest nago. ☎ 632 449 742

Adinekoak zaintzen edo garbiketalanetan aritzeko prest. Orduka. Asteburuetan barne. ☎ 629 872 270

Adinekoak zaintzen eta paseatzen egingo nuke lan. ☎ 699 535 728

Adinekoak zaintzen edo garbiketan egingo nuke lan. Berehala lanean hasteko moduan. Etxeko langile nahiz orduka. Prestakuntza eta ziurtagarria dauzkat. ☎ 638 857 100

Adinekoak zaintzen edo garbiketan egingo nuke lan. Orduka. ☎ 651 473 142

Adinekoak edo umeak zaintzen edo garbiketan egingo nuke lan. ☎ 943 74 88 99 / 685 724 861

Umeak eta adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest, esperientziarekin. ☎ 603 694 244

Atariak eta etxeak garbitzen eta adineko pertsonak zaintzen lan egiteko prest. ☎ 631 790 555

Adinekoak zaintzen lan egingo nuke. Egun osoz, orduka eta baita barne-langile ere. ☎ 631 414 947

Adinekoak eta umeak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke. Esperientzia eta erreferentziak ditut. ☎ 631 376 202

ETXEBIZITZAK.....
Etxebizitza hartuko nuke alokagai Elgoibarren. ☎ 638 338 816

GARAJEAK.....
Santa Ana kaleko 2. zenbakian garajea salgai. ☎ 658 741 463

Garaje itxia salgai Mendaron, Herriko Enparantzan. Ate automatizatua dauka eta 14 metro koadroko azalera. ☎ 648 012 181



Jesus Arakistain Makazaga

"Txus"

2018ko martxoaren 13an hil zen, 73 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



administradores
Consejo Estatal de Colegios de Administradores de Empresas
Instituto Público de Administración
Servicio Autónomo



ROSA Ma PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Nire komunitatean bizilagun gor-mutu bat bizi da. Segurtasun arazoak direla-eta bideo-atezaina instalatzea eskatu du. Nork ordaindu beharko luke instalazioa?

Bizilagun gor-mutu baten irisgarritasuna bermatzeko bideo-atezaina instalatzea zentzumen bati lotutako ezintasun bati irtenbidea ematea da. Beraz, irisgarritasunari dagozkion neurriekin tratatu behar da.

Irisgarritasun unibertsala inguruak, ondasunek, produktuek eta zerbitzuek zein objektu, tresna edo gailuek bete behar dituzten baldintzen arabera da. Hori guztia pertsona guztiak modurik seguruenean, erosoenean, autonomoenean eta naturalenean erabili ahal dezaten. Beraz, irisgarritasunari dagokionez, diseinua denentzako izan behar da eta adostasun guztiak kalterik gabe hartu behar dira.

Irisgarritasun lanak egiteko akordioak adosten direnean, komunitateak derrigorrez ordaindu beharko ditu gastuak, nahiz eta urte bakoitzerako legez adostutako mugak gainditu.

Aholkua: Legezko gehiengoak kontuan izanda erabakiak hartutakoan, jabe guztiak ordaindu beharko dute, nahiz eta instalazioaren kopurua legez ezarritakoa baino txikiagoa izan. Instalazioa derrigorrezkoa da eta jabe guztien artean banatu beharko da kostua. Legezko gehiengoak lortu ezean, komunitateak egin beharko du instalazioa, nahiz eta xafila orokorra aldatu behar izan.

Enpresa kolaboratzailea: **NORFO** P. M. Urruzuno kalea, 6 - Elgoibar



Argazkiak eguztien eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Nahia**, martxoaren 12an 8 urte bete zenituelako. Muxu handi-handi bat familiakoen partetik.




Zorionak, **Maddi**, larunbatean 9 urte. Muxu potolo bat ahizpa Garazi eta etxekoen partetik.



Zorionak, **Uni!** Segi ospatzen zure eguna. Muxu asko denon partetik.



Zorionak, polit hori, igandean zure urtebetetze eguna delako. Muxu handi bat etxekoen partetik.



Zorionak, **Iñigo** eta **Telmo**, gaur 6 urte bete dituzuelako. Etxeko guztien, eta bereziki Antxon eta Nerearen partetik, muxu handi bana.



Zorionak, **Danel** eta **Sabin** zuen bigarren urtebetetzean. Ondo pasa. Familiakoen partetik.



Zorionak, **Marina**, gaur 11 urte bete dituzuelako. Muxu handi bat etxekoen, eta bereziki June eta Ibonen partetik.



Zorionak, **Oier!** 5 urte handi! Ondo pasa eta muxu bat etxekoen partetik.



Zorionak, **Iuren!** 8 urte dagoeneko! Ze ondo pasa genuen larunbatean. Muxu potolo bat, etxekoen partetik.

Erretratu bakarrek agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€
Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarrek agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguztien eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARRENeko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com



**EGUZKITAKO
BETAURREKOETAN
AUKERA ZABALA.**

19€ gehiagogatik
GRADUATU ITZAZU!

* Kontsultatu baldintzak



25. urteurrenaren harira,
'Barren beti gainean'
argazki lehiaketa
antolatu du BARRENek.



LEHIAKETA!

BARREN beti gainean



Apirilaren 13ra arteko epea daukazue
BARREN zenbaki batekin argazkia ateratzeko.

Parte hartzen duzuen guztion artean
Errigorak emandako bi otar zozketatuko ditugu,
eta apirilaren 20ko zenbakian emango dugu irabazleen berri.



Argazkiak bidali honako helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus. Argazki guztiak www.barren.eus webgunean zintziakutuko ditugu.

16 BARIKAKUA

17:30-20:30 Odol ateratzea. Mendaroko Ikastolan.

18:30 Erakusketa: 'Begia zulotik'. Hasier Etxeberriaren oroimenez. Aitor Etxeberria, Edu Arrillaga eta Joxe Ramon Elortza. Erretratuak, koadroak, eskulturak eta Hasier Etxeberriaren testuak. Astelehenetik zapatara, 18:30etik 20:30era, Kultur Etxeko erakusketa gelan. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra.

19:00 Kontzertua: Inazio Bereziartua Musika Eskolako banda eta saxofoi taldea. Maalako parkean.

19:30 Altsasuko gazteei elkartasuna adierazteko argazkia, Kultur Etxeko atarian.

21:30 Zine foruma: *A las cinco de la tarde*. Dinamizatzailea: Loredi Salegi. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

22:00 Zine emanaldia helduentzat: *En tierra de hombres*. Mendaroko San Agustinen.

22:30 Kontzertua: Amaia, Xabi eta Pello. Ondoren, Nani. Sarrera doan. Antolatzailea: Narrutsik Elgoibarko Feministak. Sutegixa gaztetxean.

18 DOMEKA

12:30 Kontzertua: Elgoibarko Udal Musika Banda. *Arsenal* (Jan Van der Roost), *Semiramis* (G. Rossini), *Jubilance* (J. Swearingen), *Giusseppe Verdi* (N. Studnitzky) eta *Conga del fuego nuevo* (A. Márquez). Herriko Antzokian.

16:00 Zine emanaldia umeentzat: *Enredados*. Mendaroko San Agustinen.

20 MARTITZENA

18:00 Literatura tailerra: *Lo que queda del día*, Ishiguro. Antolatzailea: Haizea. Gotzon Garate Udal Liburutegian.

21 EGUAZTENA

19:00 I. Bereziartua Musika Eskolako dantza jaialdia. Herriko Antzokian.

19:30 *Biba Hasier!* ekitaldia. Gonbidatuak: Mikel Hernandez Abaituaren gogoeta; Joxerra Gartzia eta Oier Aranzabalen arteko elkarrizketa; Urruzuno Literatur Taldekoen irakurraldiak; Iban Urizar eta Aitor Nova musikariak... Antolatzailea: Elgoibarko Izarra. Musika Eskolako auditoriumean.

20:30 Ameikutz Mendaroko Musika Eskolako urteko batzar orokorra. Musika Eskolan.

22 EGUENA

19:00 I. Bereziartua Musika Eskolako dantza jaialdia. Herriko Antzokian.

20:00 Elgoibarko Ilisitasun Eskolaren topaketa. Gidaria: Jose Cruz Igartua. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

23 EGUENA

16:30-20:30 Odol ateratzea. Elgoibarko Odol-Emileen Elkartearen (Anbulategi ondoan).

19:30 Xamurtasun tailerra. Antolatzailea: Narrutsik Elgoibarko Feministak. Sutegixa gaztetxean.

20:30 Opera emanaldia (aurrez grabatuta): *Tosca*. Herriko Antzokian.




I. URTEURRENA

Iker Amutxastegi Fernandez

2017ko martxoaren 13an hil zen, 41 urte zituela.

**Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira bestiak.
Ez zaitugu inoiz ahaztuko.**

Rodisako lankideak



I. URTEURRENA

Mari Carmen Lizarralde Txurruka

2017ko martxoaren 16an hil zen, 91 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, martxoaren 17an, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zuretik eskerrak.



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)		
16 BARIXAKUA	17 ZAPATUA	18 DOMEKA	19 ASTELEHENA	20 MARTITZENA	21 EGUAZTENA	22 EGUENA	23 BARIXAKUA
Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti *Garitaonandia	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez *Fernandez
Iluntzean Yudego	Iluntzean *Oruesagasti	Iluntzean *Oruesagasti	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Garitaonandia

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guzian, gaez: 22:00-09:00
La Fuente - Sostoa kalea, 10 (Eibar)
943 254 410

Zinea (Herriko antzokian)

<p>'50 sombras liberadas'</p>	<p>16 Barixakua, 21:30 17 Zapatua, 19:00 22:15 (VOS) 18 Domeka, 19:00 19 Astelehena, 21:30</p>	<p>'Harpetarra'</p>	<p>18 Domeka, 16:30 (Euskaraz)</p>
-----------------------------------	--	---------------------	--



X. URTEURRENA

Jesus Iriondo Elorza


Iriondo Kirolak

2008ko martxoaren 19an hil zen, 80 urte zituela.

**Agur batez joan zinen
orain hamar urte.
Zu gabeko egunek
luze iraun dute,
baina gurekin zaude
bero nahiz elurte.
Familiako denek
gogoan zaituzte.**

**Aita ona zinela,
etxeko gidari,
kontatuko diegu
Nora eta Mikeli.
Sendiaren mezua
hegaka bidali,
denborak ezin baitu
maitasuna itzali.**

Etxekoek maitasunez






Iosu Juaristi



Ainhoa Lendinez



Larre berdeak, etxe zuri, teila gorriak, jendarme auto bat bidean bildots artean pasatzen."

Hazparnen jaio zen Martin Larralde. Guillaume Larralde eta Marie Ithurbide zituen aita-amak. Ama hil zenean, Martinek aitari eskatu omen zion baserriaren zati bat. Auzi hark gaiztatu egin zuen aita-semeen arteko harremana. Maizterra ere tartean zen: Martinen aitak baimena eman omen zion bere lurretan belarra biltzeko eta, egun batez, horretan ari zela, tiro bat jaso zuen maizter hark. Jendarmeek Martin atxilotu zuten, heriotza haren erantzule zelakoan. Baionara eraman, Pauen auzipetu, errudun jo, eta karzelatu egin zuten. Sei urte geroago hil zen Martin, ziegan.

Askotan etortzen zait gogora kanta hori, Joseba Sarrionandiak idatzi eta Ruper Ordorikak musikatutako kanta. Areago, gain batera igo eta argazkian bezala, mendilerroak bata bestearen

atzean ikusten ditudanean. Mendilerro bakoitza bizitzako urte bat iruditzen zait; eta gain bakoitza, bizitzako une bat.

Beste Martin bat ere "ezagutu" dut azken hilabeteotan: Martin Zalakain. Pio Baroja donostiar idazleak sortutako abenturazalea. Urbia herrian bizi zen Martin hau. Gazte bihurria zen, eta behar baino bizialdi laburragoa izan zuen, "okerreko" neskekin maitemindu zelako. Kattalin zuen izena neska hark, eta haren familiak hil zuen Martin, mendeku gosea asetzeko.

Zenbat Martin zorigaiztoko munduan! Haien izenak ez ezik, haien kondaira lazagarririk ere ahazturaren behelainoak estali ditu. Egon hor daude, ordea, behelainoaren azpian, mendiak eta zuhaitzak dauden bezala... eta hor daudenez, noizean behin, gutxien uste denean, ezkututik agerira egiten dute, itoak ur azalera bezala.

"Martin Larralde honelako egun batez hil zen galeretan, begiak zabalik etzanda, agian, zerua itsaso ziki bat dela esanez."

"Mendilerro bakoitza bizitzako urte bat iruditu zait"




Felix Arregi Bastida

2018ko martxoaren 11n hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu
jasotako doluminak, bai eta
hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Joan zara aita, baina gaurtik aurrera
inoiz baino gehiago daukat zure dizdira nire barnean.***

Betiko elkarrekin bizian eta heriotzean.



III. URTEURRENA

Lurdes Zubiaurre Pujana

2015eko martxoaren 18an hil zen, 64 urte zituela.

***Hainbeste maite zenituen
zure bailara eta mendia,
zure alaba eta biloba,
lagunak eta sendia.
Guk ere maite zaitugu,
gure bihotzetan beti bizirik.***

Etxekoak



III. URTEURRENA

Patxi Ajubita Ayesta

2015eko martxoaren 16an hil zen, 61 urte zituela.

***Hiru urte dira gure ondotik aldendu zinela eta
egunerokotasunak aurrera bultzatzen gaituen heinean,
zurekin bizitako uneak gogoratu,
utzi zenigun maitasunaz gozatu eta
elkarrekin irribarre egiten dugu.***

Zure senideak



Biba Hasier!

Hasier Etxeberria gogoan

begia zulotik **erakusketa:**

Jose Ramon Elorza

Eduardo Arrillaga

Aitor Etxeberria

Martxoaren 16tik 28ra

Inaugurazio-ekitaldia:

Martxoaren 16an, 19:00etan

Kultur Etxeko erakusketa-gelan

Biba Hasier! ekitaldia:

Mikel Hernandez Abaituaren gogoeta

Joxerra Gartzia eta Oier Arantzabalen arteko solasaldia

Urruzuno Literatur taldearen testu-irakurketak

Iban Urizar eta Aitor Novaren musika-emanaldiak

Martxoaren 21ean, 19:30ean

Musika Eskolako auditorioan



Antolatzailea:

EL CLUB BARROIZAKARRA
Kulturako Elkartea

Babeslea:



EL AYUNTAMIENTO
URRUZUNO

ETXEPE
URRUZUNO